



**Leioako «gune beltzak»
ezagutarazi dituzte EHUko
Kriminologia graduako
3. mailako ikasle bik.** ▶22-23

**Cristina Escobar kazetari kubatarra
Leioan izan da. AEBekiko harremanen
eta Kubako komunikabideen erronken
berri eman du.** ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



39. zenbakia

2015eko
azaroaren 19tik
azaroaren 25era arte

Azaroaren 25a, herri denetan

**Emakumeen kontrako
indarkeria** salatzeke hamaika
ekitaldi egongo da eskualdean.



KULTURA GETXO

Komikia nagusi

Azaroaren 20tik 22ra bitartean, bine-
taren mundua atsegin dutenak nahi-
taez batzeko gunea izango da Getxoko
Komiki Azoka. Merkataritza-guneagaz
batera, jarduera ugari egongo da; ohi
den legez, komikigile ospetsuak ere
izango dira sinadurak eskaintzen. ▶11

KULTURA GETXO

Opa dizueguna ospatuz

**Hainbat ekitalditan
izen-emateak** zabalik daude,
berbarako: argazki-tailerrarako
eta familia-ginkanarako;
bazkarirako txartelak ere salgai
daude. Zure zain gaude! ▶11

OREKA TX AZAROAK 27 LEIOA
KULTUR LEIOA - 21:00

sarrera:
15/18 €

ANTOLATZAILEA:

Euskaltzaleen
topagunea

BABESLEA:

BFA
DFB

LAGUNTZAILEAK:

institut
LEIOA

TOKIKOM

berria GARA Deia

SARRERAK:

k

BKM

UDA GOIENeko

OSTERA



Txiri-txiri

UXUNE
IRIONDO URBISTAZU
Bilgune Feministako kidea

Emakume izan,
gorputz libre
batean...

Zer pentsatu/sentitu duzue Fadurako emakumeen aldageletan kamerak aurkitu dituztela entzutean?

Beti bezala nor, zelan, zergatik, nondik, zenbat, noiztik... galderak egin eta gaizkilea harapatzeko ikerketak agindu eta egingo dituztenek ez dute inoiz bakoitzak kaka horretan guztian dugun arduraz gogoeta egingo, eraso horren errua kanpoan utzi, «gizaseme gaixo, ero, arazotsu, anormal» bati soilik leporatu eta norbera zalantzan jarri barik segituko da aurrera, arazoa «gutxi batzuek» direlakoan. Egutero bizi dugu indarkeria hitz, keinu, begirada eta abarren bidez. Emakume gorputzak irudi eta objektu sexual bihurtuta erakutsi, erabili eta saltzen dira eta azpiratuta irudikatzen besteen apetak asetzeko. Beldurrez bizitzera kondenatzen gaituzte jaiotzetik eta sozializazio prozesuan, eta jasotzen ditugun erasoen errua ere sarritan geuri leporatzen zaigu. Ez da, ordea, larrialdi egoerarik deitzen gure kontrako eraso, bortxaketa, hilketen kontagailua gelditu barik dabilen arren. Indarkeria sexista autodefentsa feministaz borrokatzea hautatu dugu, protokoloak lantzen, indarkeria sexistaren aurrean asistentzia eta babes sareak ehuntzen, etxean, familian, lagunartean, lanean, kirolean, jaietan, harreman guzietan emakumeontzako espazio seguruak sustatzen, indarkeria sexistaren egitura osoa agerian uzten. Behar, ardura eta zilegitasun osoa dugu gudan sineksi, saretu eta blokeatzen gaituen beldurra irauli eta emozio aktibatzailer bihurtzeko. Kikildu eta biktima gisa jarduten badugu arazorik ez dago jendartean; erantzuten badugu zalantzan jartzen gaituzte, zigor zuzen nahiz sozialekin. Erantzuteko eskubidea dugu, geure bizitzak jokoan daudelako, guk egin ezean beste inork egiten ez duelako. Zer egingo dute boterean daudenek emakumeak «gorputz libre batean» bizi gaitzen? ◀

Getxo

Kamera ilegalak, Fadurako aldageletan

Bideo-kamera ilegalak aurkitu zituzten Fadurako errugbi eta atletismoko emakumeen aldageletan; ez dute gehiagorik aurkitu.

Udaltzainek ez dute grabazio-kamera gehiago aurkitu Algortako Fadura kiroldegiko nesken aldageletan. Hala azaldu zuen Getxoko Udalak, azaroaren 11n hasitako ikerketa abiatu eta hurrengo egunean. Itzurbaltzeta/Romoko Gobela kiroldegia ere arakatu dute, eta ez dute kamerarik aurkitu. Halaber, Getxoko udaltzainak harremanetan ipini dira legez kanpoko

kameren grabazioetan agertzen diren pertsonakaz. Azaldu dutenez, «txikia da» atleteten eta errugbilarien aldageletako kameren grabazioetan ageri diren emakumeen taldea. Udaltzainek zabalduetako ikerketan aurreikusitako eginbideak jarraitzen dute oraindino ere.

Getxoko Udalak «haserrea eta gaitzespena» adierazi du. Ostera, lasaitasunera ere deitu ditu herritarrak. Izan ere, Udaleko kirol-instalazioetako aldageletan ez dute grabagailu gehiagorik aurkitu. Halaber, azpimarratu du «murreraino» joko duela, bai polizia-ikerketagaz, bai ikerketa horrek ekar dezakeen edozelako jardueragaz ere.

Getxo Kirolak erakundeak instala-

zio guztiak aztertu ditu daborduko, kirol-guneetako neskentzako aldageletan grabazio-gailu gehiago ez dagoela egiaztatzeko. Halaber, «aldizkako azterketak» egiteko asmoa berretsi du Udalak, legez kanpo ipin litezken kamerak aurkitzeko.

Grabaketak gaitzetsi dituzte

Grabaketak egin dituzten ezezagunei arbuioa eta gaitzespena agertu die Getxo Rugby taldeak. Klubak «erabateko errefusa» erakutsi du pertsonen pribatasuna urratzen duten jarreraren aurrean, «adin txikikoak tartean badaude, batez ere». Azpimarratu dutenez, «jokalarien segurtasuna gure lehentasun nagusia da». ◀



Larrialdi Plan Berezia gaurkotuko dute.

Portu Zaharreko Larrialdi Plan Berezia onartu du Udalak

Portu Zaharreko Larrialdi Plan Berezia onartu du Getxoko Udalak. Babes Zibilaren Udal Planaren barruan aurreikusita dago hori, eta arreta berezia eskainiko die pertsonen eta inguru horretako balizko leku arriskutsuei. Era berean, irisgarritasunaren eta larrialdi zerbitzuetarako Babes Zibilaren bitartekoen mapa eta diagrama egin dituzte.

Planaren helburuak ondorengoak dira: nor bere buruaren babes sustatzea, herritarren artean informazioa zabaltzea, eta arriskuaren gaineko kultura prebentiboa sortzea; jardueren prebentiboak koordinatzea, arriskua

eragin dezaketen jardueretako jabeak; eta larrialdiaren erantzuna antolatzea jardueren mistoko prozeduraren bitartez, hau da, herritarren eta zerbitzu publikoen partaidetzagaz.

Jarraipen eta Herritarren Partaidetzarako Batzordea dauka Planak, Portu Zaharreko auzokideen elkartearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Suhiltzaileen eta larrialdiak prebenitzeko eta kudeatzeko beharretan parte hartzen duten udal sailen laguntzagaz.

Plana etengabe eguneratzen dabil-tza, zer hobetu aurreikusten duten jardueren eta helburuen bitartez. ◀

info+: www.getxo.eus

Garapenerako laguntzak emango ditu Getxoko Udalak

Nikaraguako Tipitapa udalerrian Neuri-urak drainatzeko eta saneamendurako lanak egiteko proiektua aurrera eramateko 42.457 euroko dirulaguntza eman dio Getxoko Udalak Euskal Fondoa langile boluntarioen elkarteari. Umeen eta egoera ahulean dauden pertsonen sabeleko eta arnasketari lotutako gaixotasunen eraginak murrizten lagundu gura du egitasmo horrek, baita euriak herritarrengan eta eraikinetan sor ditzaketen kalteak prebenitzen ere. Udala 2001ean sartu zen Euskal Fondoan, eta orain arte sustatutako jardueren gehienak Nikaraguako Tipitapa udalerrian egin dituzte. Azaldu dutenez, Udalak orain arte emandako laguntza hurrengorako izan da: auzo batzuetan saneamendu-azpiegiturak egokitzeko, liderrak hezteko, eta udal planifikazioa sustatzeko.

GKE-entzako diru-laguntzak

Hilaren 20ra arte aukera dago GKEak indartzen laguntzeko eskaerak aurkezteko epea. Diru-laguntzak, besteak beste, egoitzen mantentzea eta langileen eta heziketako gastuak ordaintzen laguntzeko izango dira. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan eta Getxoko Erakundearen Udal Erregistroan izena emanda duten irabazi asmo bako elkarteek eskatu ahal izango dituzte laguntza horiek. ◀

info+: www.getxo.eus

Getxo

Genero indarkeriari ez!

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 25ean; horren harira, Udalak eta eragile feministek jarduera ugari antolatu dituzte Getxon.



Jarduera ugari antolatu dituzte Udalak eta bertoko eragile feministek.

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Hori dela-eta, herrietako udalek eta eragile feministek hainbat jarduera antolatu dituzte egun horri begira, eta Getxo ez da salbuespena izango. Hilaren 19an, eguna, hasiko dira egun horri begirako ekimenak, *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizunagaz: antzerki, bertso, musika eta poesia batzen dituen saioak, euskaraz. Halaber, gizontasunaren gainean hausnartuko dute; hitzordua Azebarri kultur elkar-tearen egoitzan izango da, 20:00etan.

Hurrengo egunean, barikuan, Itzurbaltzetako Emakumeon Asanbladak poteoa abiatuko du 20:00etan Lola's tabernatik (Txiskales). Hilaren 20an eta 21ean, emakumei eta gizonei zuzendutako generoari buruzko tailerra egingo dute: *Genero: maskara joko*, Itzurbaltzeta/Romoko kultur aretoan. Azaroaren 22an, berriz, bideo-forum feminista egingo dute Brankan, 19:00etatik aurrera. Azaroaren 23an,

astelehena, etxeko langileen baldintza eta eskubide urraketen inguruko berbaldia eskainiko du Josefina Ricok 19:00etan, Villamonteko kultur etxean. Hilaren 27an, berriz, Josune Muñozek *El Boom de la novela sentimental para jóvenes* hitzaldia eman- go du 19:00etan Villamonteko kultur etxean; eta azaroaren 29an *La máquina del tiempo* antzezlan- a egongo da ikusgai. Gizatiar Emakumeen elkar- teak, berriz, elkarretaratzea antola- tu du emakumeenganako indarkeria- ren aurka, azaroan 25ean, arrastiko 19:30ean, Bizkaia Zubian, eta hilaren 26an, indarkeriaren errealitatearen in- guruan solasaldia egingo dute Itzurbaltzeta/Romoko elizan. Bestalde, Muje- res con Voz elkarteak, antzerki-foruma antolatu du Nuria Valentegaz, hilaren 23an Faduran, eta azaroaren 28an, tai- lerra: *El buen amor como alternativa a la violencia*. Algortako mugimendu fe- ministak, ostera, performancea eta ma- nifestazioa egingo dute hilaren 25ean, 19:30ean, emakumeen kontrako in- darkeria salatzen. Azkenik, egun ho- rretan ere, manifestazioa egingo dute Itzurbaltzeta/Romon, 20:00etan. ◀

jarduera gehiago: www.getxo.eus



«Muni»-k 20 urte preso egin dituela gogoraraziko dute

Albaro Arri Pascual «Muni» euskal preso politiko algortarrak espe- txean 20 urte beteko ditu aurten. Hori gogorarazteko eta «salatzeko», Algor- tako Sorterrira taldeak astebeteko egi- taraua prestatu du hilaren 23tik 28ra, «Espetxe-politika kriminalari stop!» goiburuagaz. Astelehenean, azaroa- ren 23an, manifestazioa egingo dute 20:00etan, Telletxetik abiatuta. Egun bi geroago, hilaren 25ean, Arri Pas- cualen egoera salatuko dute mozio batez. Horri lotuta, Getxoko udale- txeko atarian biltzeko deia egin dute, 17:00etan. Azaroaren 27an, «azken barikua» dela aprobetxatuz, ekitaldi berezia egingo dute Telletxe plazan, 20:00etan. Azkenik, zapatuan, hila- ren 28an, argazki erraldoia egingo dute 13:00etan Satistegi ondoko pla- zatxoan. Espainiako Auzitegi Gorenak Albaro Arriri 208 urteko espetxe-zigo- rra berretsi zion 2007an. Aurreko epai- keta batean, beste 186 urteko zigorra jarri zion algortarrari Espainiako Auzi- tegi Nazionalak, eta beste batean, ha- mar urte; 404 urte, guztira. ◀

Humanae proiektua hasiko da Getxon

Angelica Dass artista brasildarraren *Humanae* argazki-proiektuan era boluntarioan parte hartzeko izen-ema- tea zabaldu du Getxoko Udalak. Ekime- na Zurrumurruen Kontrako Estrategia- ren barruan dago. Argazkiak ateratzeko hitzorduak hilaren 24an eta 25ean izan- go dira, 16:00etatik 21:00etara; oraindi- no ez dute erabaki non egingo duten. *Humanae* proiektuak gizakien azal des- berdinen tonuen inbentario kromati- koa osatu nahi du, erretratuen bitartez, azalaren tonu posible denak erregistra- tu eta katalogatzeko. Orain arte, 2.500 lagunek baino gehiagok parte hartu dute argazkietan. ◀

info+: www.getxo.eus

AZAROAK
27
28
29
 NOVIEMBRE
 2015

GETXOKO XXXII. ESKULANGINTZA AZOKA
XXXII FERIA DE ARTESANÍA DE GETXO

78 SALTOKI | 78 PUESTOS
 20 ESPECIALIDADES | 20 ESPECIALIDADES
 HAURRENTZAKO TAILERRAK
 TALLERES INFANTILES

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
 PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

ORDUTEGIA | HORARIO:
 11:00-14:30 | 17:00-21:00
LARUNBATEAN, 21:30AK ARTE
 SÁBADO, HASTA LAS 21:30

SARRERA DOHAIRIK | ENTRADA GRATUITA

ANTOLATZAILEAK | ORGANIZA
 Getxo

BABESLEAK | PATROCINAN
 Euzko Lehen Telebista
 Euzko Irratiak
 Euzko Telebista

LAGUNTZAILEAK | COLABORA
 bbk
 EL CORREO
 metro bilbao

Getxo



Gaur egun, 75 lagun inguruk parte hartzen dute Mintzakuadrillak egitasmoan.

«Euskara bultzatu nahi dugu gazteon artean»

Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeagaz batera, kuadrillen arteko harremanak berreskuratzeko balio du Mintzakuadrillak egitasmoak. Iazko edizioa arrakastatsua izan zen, eta aurren, lagun gehiagok parte hartzea espero dute.

IKER RINCON MORENO ▶

Iazko arrakastaren ostean, aurren ere aurrera doa Getxoko Mintzakuadrillak egitasmoa. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoz, 75 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute egitasmoan. Oraindik ere, izena eman daiteke 619 935 541 telefono zenbakira deituta (Egizu).

Zer da Mintzakuadrillak egitasmoa?

Izatez, gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko proiektu bat da Mintzakuadrillak. Kuadrillak edo

banaka parte har daiteke. Kuadrilla egiten dutenek egun bat eta ordu bat adosten dute euskaraz hitz egiteko. Hala, astero behintzat ordubete ematen dute euskaraz egiten, baina ez du zertan egun eta ordu berean izan, hori kuadrillak adosten du. Izena banaka ematen dutenek, berriz, kuadrilla «artifizial» bat sortzen dute, euren artean adosten dute ordua eta eguna, eta konpromisoa hartzen dute euskaraz hitz egiteko.

Zeri erantzuten dio proiektuak?

Eskolan eta horrelako tokietan euska-

ra erabili eta euskaraz ikasten dugu, baina hortik kanpo, gure eguneroko bizitzan ez dugu horrenbeste erabiltzen euskara. Hori ikusita, euskara nolabait gazteen artean bultzatzeko beharra ikusi zen, ohitura hori aldatzeko. Izan ere, Getxo nahiko erdaldu-na da, eta hori aldatu nahi izan dugu, euskara neurri batean bultzatzeko.

Euskaraz berba egiteaz gainera, hainbat jarduera egin zenituzten iazko ekitaldian, ezta?

Bai, *paintball*, *rafting*, eskalada ikastaroa, eta urte bukaerako afaria egin

genituen. Afari hori oso arrakastatsua izan zen, 60 lagun inguru elkartu ginen. *Rafting* egin genuenean, berriz, Donostiako Mintzakuadrillak egitasmoan parte hartzen zutenekin elkartu ginen; oso dibertigarria izan zen.

Aurtengo edizioari begira, zeintzuk dituzue aurreikusita?

Ez da ezer finkoa, baina agian sukaldaritzarekin zerikusia duen ikastaro bat egingo dugu, gozogintzari lotutakoa. Gero, aisialdirako ekintzak ere egingo ditugu, kirolarekin lotuta. Eki-men horiekin, nahiz eta kuadrillak euren artean euskaraz egin, asmoa dugu herrian dauden beste kuadrillak ere ezagutu ditzaten, eta harreman hori euskaraz egin dezaten. Oraingo jarduerak herrian bertan egingo ditugu, jendeak ikus ditzan, eta horietan parte hartzera animatzeko.

Kuadrillen artean harremanak sustatzeko ere balio du Mintzakuadrillak?

Bai, euskararen erabilera eta harremanak sustatu nahi izan ditugu proiektuarekin. Azken finean, Txiki-Otaegi plazan biltzen ginen Algortako gazteok, baina obrak hasi zituztenetik, askok txokoetan biltzeko joera hartu zuten.

Zenbat lagunek parte hartzen duzue aurren?

Iazko guztiak daude, kuadrilla bat izan ezik. Gutxi gorabehera, 75 lagun inguruk jarraitzen dugu; hala ere, zabalte-prozesu batean gaude orain. Kuadrilla gehiago animatzen saiatzen ari gara.

Euskararen Egunaren harira, zerbait egiteko asmoa duzue, ezta?

Bai, Euskarak 365 Egun-ek eta beste eragile batek egingo duten gazteei begirako *flashmob*-era joateko deialdia egingo dugu, Ernairekin batera. Abenduaren 3an, berriz, gazte-ekimena egingo dugu, gazteen artean euskara badabilela aldarrikatzeko. ◀

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu
**%50eko
deskontua**
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

KONTXI
ZU AZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TABERNA
Unai
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu
Zaharra
Bar

EKIN
Jatetxea
Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Erandio

Udalak gardentasun, gobernu on eta parte-hartzearen alde joko du

Gobernagarritasun-plana diseina diezaion, Udalak 6.000 euroan kontratatu du aholkularitza-enpresa bat. Prozedurak, fiskalizazioa eta webgunea hobetuko dituzte.



Udala gardenagoa eta parte-hartzaileagoa izan dadila gura du Udal Gobernuak.

Erandioko Udalak enpresa bat kontratatuko du udalerrirako gobernagarritasun-plana idatz dezan. Horrela jakinarazi zuen Iratxe Ruiz Diruzaintza zinegotzi jeltzaleak, pasa den urriaren 29ko Udalbatzan, Udal Gobernuaren gastuen partidan izandako aurrekontu-moldaketa bat azaltzean. Ondoren, Joseba Goikouria alkateak argitu zuen kontratuaren diru-kopurua: 6.000 euro. Ana Crespo EH Bilduko bozeramaileak egindako galderei erantzunez egin zuen.

Espainiako legedia

Hego Euskal Herriko erakunde publiko denek bete behar dute Espainiako 19/2013 Legea; gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu ona arautzen ditu lege horrek. Legeak datu eta informazio zehatzen zerrenda bat osatu du, informazio hori publiko egiteko modu irisgarrian gauzatzeko agintzeaz gainera.

Hala ere, Erandioko Udal Gobernuaren planteamendua harago doa, Goikouriak argitu zuenez. «Lehenen-

go aldiz» lau urterako plana egin gura baitute; «ea egiteko gai garen», aitortu zuen. Alkateak akordura ekarri zuenez, Udalak urteak eman ditu ahaleginak egiten aurrekontu-zirriborroak otsail edo martxorako idazteko, eta, «hein batean» lortu du. Orain, prozesu horiek azaro edo abendurako aurreratzeari da asmoa, aholkularitza-enpresak proposatuko dituen neurriakaz. Era berean, plana alkatearentzat eta Udal Gobernuarentzat ez ezik, oposizioarentzat ere «baliagarria» izango dela uste du Goikouriak, «fiskalizazio lanak erraztuko dituelako».

Rafa Vaquero Ganemos Erandio-ko bozeramaileak pozik hartu zuen neurria, «egin beharra zegoelako».

Gardentasun-adierazle gehiago

Goikouriak aurreratu zuenez, Erandioko Udal Gobernuak azpimarratu du Espainiako legeak baino «askoz gardentasun-adierazle gehiago» garatu dituztela, «herritarrek ezagutzeko eskubidea daukatelako».

Lehenengo urratsa izango da udaleko kudeaketagaz lotutako «datu ugari» aurkeztea, eta «herritarren eskura» jartzea, gardentasunaren atari baten bidez. Horretarako, laster webgune berria estreinatuko du Erandioko Udalak.

Gainera, hori «hasiera» besterik ez da izango, herritarren parte-hartzea sustatzeko bidean. ◀

Indarkeria matxistaren aurka, mobilizazioak izango dira

Datorren eguaztenerako, azaroak 25, deialdi bi egin dituzte Erandion, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Lehenengoa, goizeko 12:00etan izango da, Altzagako Irailaren 23a plazan, udaletxearen aurrean. Bertan, elkarretaratzea egingo dute, eta ondoren, udalerriko emakume-elkarteek adostutako testua irakurriko dute.

Ekitaldiaren ondoren, ez dute ohiko manifestaziorik egingo. Horren ordez, Astrabudura joango dira herritarrek, 13:00etan Josu Murueta plazan indarkeria matxista salatzeke beste kale-agerraldi bat egitera. Astrabuduan ere, elkarteen testua irakurriko dute.

Ekitaldien deitzaileak dira Altzagako Erandioko Emakumeen Elkarte Soziokulturala, Astrabuduko Emakumeen Elkarte, Erandiogoikoko Dama txoak eta Erandioko Udala. Halere, Ana Tere Alvarez Altzagako emakume-elkarteko kideak iragarri duenez, institutuko ikasleak ere gehituko dira. Garrantzi handia eman dio Alvarezek



Udaletxean, goizeko 12:00etan batuko dira.

aurten estreinatuko duten Astrabuduko elkarretaratzeari. Izan ere, Almdena Matarranz bertan hil zuten pasa den hilabetearen.

Berdintasun Zerbitzua

Leire Idarraga Erandioko Berdintasun Zerbitzuko teknikariak akordura ekarri duenez, azaroan autodefentsa tailerra egin da Erandioko jabekuntza Eskolan. Era berean, iragarri du abenduaren 2an, genero ikuspegiko hiri-diagnostikoa aurkeztuko dutela Behargintzako egoitzan, eta hurrengo egunean, zine-foruma izango dela. ◀

Kalezuloren 4. urteurren-ospakizunak ez dira amaitu

Euri-jasak bustita abiatu zuten Erandioko Kalezulo gaztetxearen 4. urtemuga, pasa den barikuan. Hala, Polekeleke elektrotzarangak alaituta, hainbat lagun batu ziren gauean txupin-jaurtiketa ikusterera. Orduan irakurri zuten Erandioko Gazte Asanbladak urteurrenerako zabaldu gura duen mezua.

Kukutza eta Kortxoenea, gogoan

«Kalezulok herriaren mesedera dagoen tresna izaten jarraituko duela» ziurtatu zuten gazteek, nahiz eta «kalean ere segituko» dutela esan, «kalea geurea, zuena, guztiona delako». Era berean, «botereak eraitsi dituen ametsen fabrikak diren gaztetxe denak gogoan» izan zituzten; batez ere, Errekaldeko Kukutza eta Donostiako Kortxoenea. Izan ere, «gaztetxeak gaur egungo sistemari aurre egiteko tresnatzat» jo zituzten, «gure eskaintza alternatiboak min» egiten diola aldarrikatzeaz gainera. Urtemuga-ekitaldiak zapatuan amaituko dira. ◀



Pasa den zapatuko bertso-saioa.

Egitaraua

Azaroak 21, zapatua

11:30 Umeentzako tailer eta antzezlanak, Trantxi, Trontxi eta Truntxi pailazoakaz, Irailaren 23a plazan, udaletxearen aurrean.

13:00 Polka erraldoia, Koliseoan, eta triki-poteoa, Kalezulo gaztetxeraino.

15:00 Gazte-bazkaria.

Ostean *Probatu ez duenak ez daki zer den hau* Gasteizko gaztetxearen dokumentala.

18:00 Lorezaintza.

19:00 Beti-Lagun tabernaren agurra: Amagoren emanaldia, eta ezustekoak.

21:00 Kontzertua: Bastards On Parade (Galizia), Garilak 26; ekitaldia eta DJ Asuran.

Leioa

Ikasleak ere indarkeria matxistaren kontra

Azaroaren 25ean, Boulevarden egingo dute elkarretaratzea, 12:15etik aurrera; 600 ikasle inguruk parte hartzea espero dute udal agintariak.



Boulevardaren egiten dituzte emakumeenganako indarkeriaren kontrako kontzentrazioak.

Azaroaren 25aren testuinguruan, Leioako hainbat ikastetxetako neska-mutilek ere salatu egingo dute biolentzia matxista; Udalaren Berdintasun Saila hezkuntza-zentroak elkarlanean dabil, hainbat ekintza aurrera eramateko. Besteak beste, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean bertan, leioztar denei zuzendutako kale-agerraldian parte hartuko dute Lehen Hezkuntzako 6. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleak. Elkarretaratzea 12:15ean izango da, Boulevarden; 600 neska-mutil inguru egotea espero dute bertoko agintariak.

Ekimenakaz jarraituz, udalerriko ikastetxe denetan egingo dute tapoi-bilketa, 2016ko maiatzaren amaierara arte; edukiontzia azaroaren lehenengo astean jarri zituzten hezkuntza-zentroetan. Batutako tapoiak diruagaz aldatuko dituzte; irabazitakoaren zati bat tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeakaz lan egiten duen elkarteren bati emango diote, udal iturriek azaldu dutenez. Horrez gainera, puntu liladun txapak banatu dituzte ikasle

eta irakasleen artean. «Emakumeenganako indarkeriaren kontrako borroka ikurra dira», agintari leioaztarrek adierazi dutenez.

Bestalde, *Jaia geurea, gauean ere bai* goiburua erabiliz, kartel-lehiaketa antolatu dute, Leioako hezkuntza-zentroetako Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean egiteko. Ikastetxe bakoitzak lan bi aukeratuko ditu; ikastetxe denek arteko kartel irabazlea izango da 2016ko jaietan erabiliko den eraso sexisten aurkako irudia. Halaber, irabaziko duen hezkuntza-zentroak sari bat jasoko du, tapoi-bilketan lortutako dirua erabiliz, Udalaren Berdintasun Sailak zehaztuko duen beste zenbateko bategaz.

Andrak emakumeen elkarteak

Andrak emakumeen elkarteak, ohi duen legez, Udalagaz batera egingo du elkarretaratzea Boulevarden, eguerdiko 12:15ean. Horrez gainera, eguntan, Nuria Varelaren *Feminismo para principiantes* liburua euren webgunean ipintzea aurreikusi dute elkarte-lagunek. ◀

Umetxo bat itotzeko arriskuan egon da Sakonetako igerilekuan

Sakonetako kiroldegiko igeriketa-ikastaroetan dabilen 4 urteko nekato bat itotzeko arriskuan egon zen urriaren 21ean; kanpoan, leihotik begira zegoela, aitak joan behar izan zuen arrapaladan bere alaba erreskatatzera. Horrelakorik berriro gertatu ez dadin, sinadura-bilketa abiatu dute.

Neskatoaren aitaren arabera, monitore bat, eta, txandaka, sorosle-lanak egiten dituzten lagun bi egoten dira Sakonetan: sorosleetako batek igerileku handia zaintzen du, besteak begirale jarduten du, bien bitartean. Umeak, oster, igerileku txikian egoten dira, monitore bakarragaz. Udal arduradunek diotenez, umearen gura-



Umetxo bat igerian. © LEIOAKO UKI

soakaz harremanetan dabilta zer gertatu zen argitzeko. «Dena den, udal ekipamenduek segurtasun-neurri denak betetzen dituzte; giza akatsa izan zelakoan gaude», gaineratu dutenez. ◀

sinatzeko: chn.ge/1NZKWfZ

Herritarrak klik bakarrez sar daitezke kaleko wifi-zerbitzura

Udalak herriko hainbat gunetan eskaintzen duen wifi-zerbitzua erabiltzea errazagoa da azaroaren hasieratik. Lehen, pasahitza eskatu beharra zegoen; orain, oster, konektatzeko, erabilera-arauek onartzeagaz nahikoa da. Edozein erabiltzaile sar daiteke Udalaren wifi-sarera edozein momentutan, sartu baino arinago erabilera-araudia klik bategaz onartzen badu. Konexio hori egun horretako gauerdia artekoa da; hurrengo egunean erabiltzaileak berriro onartu behar izango du erabilera-araudia. Irudia ere aldatu egin dute: oraingo wifi-atala modernoagoa da; euskarri digital denetara egokitzen da. ◀

Inbisa 28 etxebizitza eraikitzen hasi da, Arteatik paraie

Inbisa enpresak lortu ditu Arte merkataritzagunetik hurbil, Artatza eta San Bartolome kaleen gurutze-gunean, 28 etxebizitzako eraikina egiteko lanak; daborduko, blokea altxatzen hasi dira. Sozietateak berak jakinarazi duenez, hiru milioi euro baino gehiagoko aurrekontua dauka kooperatiba erregimenean aurrera eroango duten sustapen berri horrek: 5.200 metro koadrotan eraikiko dituzte pisuak, garajeak eta etxearen beheko aldeko saltokiak. Iñaki Aurrekoetxea Aurre arkitektoa da proiektuaren egilea. Gaur egun, EAEn 600 etxebizitza baino gehiago altxatzen dabil Inbisa; besteak beste, Leioan eta Sopelan. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Uribe Kostako astekaria

hiruka

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus

Sopela



Azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo da udaletxeko plazan, 19:00etan

Salaketa eta autodefentsa

Azaroaren 25a dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu dute Sopelan, datozen egunotarako.

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunean elkarretaratzera deitu dute, 19:00etan, udaletxe aurreko plazan. Ekitaldian manifestu bat irakurriko da, eta puxika lilak eta zuriak askatuko dituzte. Ondoren, mahai-ingurua egingo dute udaletxean, ondoko gaiaren inguruan: «Lazos que duelen: madres de hijas/os violentas/os», gazteleraz.

Hala ere, beste ekimen bi ere baituzte aurreikusita, Azaroaren 25a dela-eta. Azaroaren 28an, zapatuan izango dira biak. Alde batetik, autodefentsa-ikastaroa antolatu du Itzartu taldeak. Kurtzio kultur etxean egingo dute, goizeko 09:00etatik aurrera; par-

te hartzeko 10 euro ordaindu beharra dago. Bestetik, antzerkia izango da; hori ere, kultur etxean: Besarkada taldeak *Las Lisystratas* lana antzeztuko du, 20:00etan; 5 euroan erosi daitezke sarrerak.

Udalaren adierazpenak

Urriko udalbatzan, mozio bi onartu zituzten gaiaren harira. Udalak «emakumeen kontrako edozein motatako indarkeria-adierazpena» gaitzetsi, «egiturazko arazoa» dela berretsi, eta hari «berdintasun politiken bidez heldu behar» zaiola adierazi zuen; eta, «berdintasunaren alde udal politika aktibo eta integrala garatzeko» konpromisoa hartu zuen. Era berean, «indarkeriei aurre egiteko plana» abiatuko duela onartu zuen, «emakumeekin eta talde feministekin elkarlanean, beharrezko neurriak aktibatuz». Hala, «berdintasun-unitateak baliabide tekniko eta ekonomiko hornituko» ditu. ◀

Erakusketa bat «zentsuratzea» egotzi dio EH Bilduk EAJri

Zigor Merodio Bilboko presoaren eskultura-erakusketa debekatzea leporatu dio EAJri EH Bilduk. Koalizio abertzaleak dioenez, erakusketa Kurtzio kultur etxean egitekoa zen, baina EAJk «baimena ukatu dio».

Sopela.net agerkarian azaltzen denez, «maiatzean, erakusketa egiteko aukera eskaini zioten Sopelako Udalarari. Orduan, EH Bildu zegoen udal gobernuan; azaroan egitea proposatu, eta datak gorde ziren». Orain, EH Bilduren arabera, «EAJk argudiatu du kontuzko gaia dela, eta ez dela momentu egokia». EH Bilduk iragarri duenez, mozioa aurkeztuko du hurrengo Osoko Bilkuran.

Udal Gobernuaren arabera, txosten tekniko eskatu du Alkatezaz. Erakusketa egin ala ez udal alderdietako bozeramaile guztien artean erabakitzea nahi du; horregatik, txostena dagoenean eurei pasatuko diete, baita erakusketaren aurkezpen-txostena ere. Halaber, Alkatezaz daukan informazioaren arabera, «data ez zegoen erreserbatuta eta aurreko korporazioak nahiago zuen hurrengo korporazioak erabakitzea». Argi utzi gura izan dute: «Alkatezaz gai honen berri izan duenean, txostena eskatu du». ◀

Sergio Polo presoari beste ekintza bat leporatu diote

Sopelako Sergio Polo Escobes presoari beste ekintza bategatik prozesatu du Espainiako Auzitegi Nazionalak. Hain zuzen ere, Luciano Cortizo militarra 1995ean hiltzea leporatu dio epaileak. Ostera, Polok ukatu egin zuen atentatuan parte hartu izana. Kasua argitu barik, itxita zegoen, eta Auzitegiak urrian zabaldu zuen, berriro ere. ◀

Olentzeroren eta Mari Domingiren marrazki-lehiaketa

Abian da Olentzeroren eta Mari Domingiren marrazki-lehiaketa, beste behin ere! Irudiak aurkezteko epea azaroaren 24an amaituko da, eta 5 eta 12 urte bitarteko umeek parte har dezakete. Lanak Kurtzio kultur etxean aurkeztu beharko dituzte: marrazkiaren atzetik ezizen bat ipini beharra dago, eta kanpoan, ezizen hori daukan gutun-azal baten barruan, egilearen datuak adieraziko dira (izena, adina, helbidea eta telefonoa). Marrazki sariduna Gabonetako postalaren irudia izango da, eta Olentzeroren eta Mari Domingiren gaua iragartzeko erabiliko da. Era berean, hiru sari banatuko dira, noiz eta abenduaren 24an, udaletxeko plazan; Olentzeroren eta Mari Domingiren gauaren ospakizunean. ◀

info+: www.sopela.eus

Katixa Agirre idazlea egongo da gaur Irakurle Klubean

Hilabete honetan, Katixa Agirrek bisitatuko du Irakurle Kluba. Hitzordua azaroaren 19an da, eguna, 19:00etan. Hain zuzen ere, Agirreren *Atertu arte, itxaron* liburua aukeratu dute hil honetan lantzeko. Ohi legez, Kurtzio kultur etxean batuko dira klubeko lagunak.

Irakurle klubak euskara eta euskal literatura sustatu gura ditu; horregatik, saioak euskaraz dira. Irakurgaiak ere, denak euskaraz. Parte-hartzea irekia da, edonor joan daiteke; gainera, saioak elkarrengandik independenteak dira: liburu ezberdinak aukeratzeko dituzte. Euskara Zerbitzuak urtarrean abiatu zuen kluba, eta Danele Sarriugarte Mochalesek gidatzen du. Gaurkoan ere, animatu eta bertaratu, Agirregaz berba egiteko aukera itzela izango duzu-eta! ◀

Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Ibarre 9 / 48600 SOPELA
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Plentzia



Hondartzan, portuan eta Astillero plazan jartzekoak ziren Interneterako aireko sarbideak.

Kaleko wifiari uko egin diote

Kalean wifi-eremua ipintzeko Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen 3.000 euroko diru-laguntzari uko egin dio Plentziako Udalak. Osasunaren Mundu Erakundeak, Europar Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak egindako hainbat ikerketa ekarri ditu gogora Udalak hori arrazoitzeko. Horien arabera, biztanleria orokorrean eremu elektromagnetikoetatik babesteko beharra dago, eta WiFi sistematik ere bai. Adibidetzat, OMEk egindako ikerketa azaldu dute udal agintariek; ikerketa

horren arabera, eremu elektromagnetikoak «minbizi-sortzaileak» izan daitezke gizakientzat (2B taldea). Interneterako aireko sarbideak hondartzan, portuan eta Astillero plazan jartzea aurreikusi zuten. Joan-etorri handiko lekuak direla ohartarazi du Udalak; horregatik, «eremu elektromagnetikoetatik babesteko», Udalak Arreta eta ALARA Printzipioak ezarriko ditu, «biztanleria eremu elektromagnetiko artifizialeetatik babesteko asmoz, tartean, wifia». Hala, Aldundiaren 3.000 euro horiei uko egin die Udalak. ◀

Udalak 167.000 euro itzuli beharko dizkio Aldundiari

Plentziako EH Bilduk Bizkaiko Foru Aldundiaren zerga-politika «oke-rra» salatu du. Izan ere, gogoratu dutenez, Bizkaiko udalek «herritarren premiak asetzeko behar duten dirua» itzuli beharko diote Foru Aldundiari. Hala, Plentziak 167.000 euro itzuli beharko dituela jakinarazi du tokiko koalizio abertzaleak.

EH Bilduren ustez, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-bilketari dagozkion aurreikuspenak «ez betetzea» izan da Bizkaiko udalek 48 milioi euro itzultzeko arazoaren «iturria». Jakinarazi dutenez, abuztuaren amaieran, aurreikusitakoa baino %50 gutxiago

izan zen diru-bilketa; irailean, berriz, «handitu egin omen da». EAEko Finantza Kontseiluak urriaren 14an emandako datuen arabera, 212,5 milioi euro gutxiago batu ditu Bizkaia.

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak agindu zuen ez zela murrizketarik egongo, aurreikuspenak betetzen ez baziren ere. EH Bilduk, berriz, salatu du hori «gezurra» dela, bueltatzea murrizketa bat delakoan dago-eta koalizio abertzalea. «Zentzu horretan, gure iritziz, ez da kontuan izan udalek diru hori behar dutela herritarrei eman beharreko zerbitzuak eskaini ahal izateko». ◀

Herriko gazteen iritziak jakin eta jaso gura ditu Udalak

Plentziako Udala harremanetan jarri da lonjak erabiltzen dituzten gazteakaz, euren eskakizunak ezagutzeko eta elkarlanean eskakizun horiek betetzeko lan ildoak zehazteko. Hala, joan den azaroaren 6an, David Crestelok eta Gazteinfoko teknikariak gazteen lonjak bisitatzeaz gainera, azaroaren 27an izango den batzarrera gonbidatu zituzten gazteak. ◀



Gorliz

Gorliz «dastatzeko» aukera egongo da hilaren 27an, ibilbide bategaz

Gorlizetik bazter gorde asko ditu, arrantzarako, mendirako, hondartzarako zein gastronomiarako. Ia denetarik egin daiteke gaur egun kostaldeko herri horretan. Hori dela-eta, bertako ezaugarriak ezagutarazteko, Udalak Gorliz «dastatzen» ikasteko ibilbideak antolatu ditu hil honetarako, «bazter gastronomiko guztiak ezagutzeko» helburuagaz. Azaroaren 13an, barikuagaz, egin zuten lehenengo tailerra. Horretan, parte-hartzaileek ardoa dastatzen ikasi

zuten, herriko 4 tabernatan. Hurrengo saioa hilaren 27an izango da, barikuan. Beste ibilbide bat egingo dute parte-hartzaileek, beste 4 taberna bisitatzeko. Hala, Gorlizko I. Ibilbide Gastronomikoagaz, herritarrek hainbat mokadu eta edari dastatzeko aukera izango dute herrian. Gorlizetik, Plentzian edo Lemoizen erroldatuta dauden eta interesa dutenak 9 euro ordaindu beharko dituzte; gainontze-koek, osterak, 10 euro. ◀

info+: www.gorliz.eu

Dastatu Gorliz!

Azaroak 27, barikua

Gorlizko I. Ibilbide Gastronomikoa

19:00

Gorlizko Turismo Bulegoan.

Leku-kopuru mugatua.

Izena eman beharra dago, 946 774 348 telefono-zenbakian.

Gorlizetik, Plentzian edo Lemoizen erroldatuta dauden guztiak 9 euro ordaindu beharko dituzte ibilbide gastronomikorako.

Besteek, 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Estatuko 7. hondartzarik onena, Gorlizkoa

Gorlizko hondartza 7.a da espainiar Estatuko hondartza onenen artean, Erabiltzaileen eta Kontsumitzaileen Erakundeak (OCU) egindako inkestaren arabera. Horretarako, lau ezaugarri hartu dituzte kontuan, garrantzi-maila ezberdinagaz: ingurua %40, uraren eta haren garbitasuna %30; ekipamenduak (dutsak, txosnak...) %15, eta segurtasuna %15. «Gorlizko hondartzak behar duen guztia lortu du kalitateari begira», nabarmendu du Arantza Etxebarria Villabeitia alkatea. ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Urduliz

Udalbatzaren aktak euskaraz egitea eskatu du EH Bilduk



Maria Rosario Diaz eta Dabi Zuazua EH Bilduko zinegotziak.

Urdulizko EH Bilduk udal-erri horretako EAJ salatu du, ohar baten bidez, legealdia hasi zenetik «EH Bilduko zinegotziora eta urduliztarren hizkuntz eskubideak» urratzeagatik. Koalizio soberanistak argudiatu duenez, Urdulizko Udalean «lau osoko bilkura izan dira orain arte, eta lau osoko bilkura horien aktak erdara hutsean jaso ditugu EH Bilduren ordezkariok». Koalizio abertzalearen ustez, Udalak aktak euskaraz ere zabaltzeko lana hartu behar-

ko luke, besteak beste, koalizioaren zinegotziek udalbatzetan «euskaraz hitz egiten baitugu». «Erdarazaletasuna» ere egotzi diote Urdulizko EAJri.

Behatokia eta Arartekoa

«Erdara hutsaren alde egiten duenean, PNVk ez ditu bakarrik EH Bilduren hizkuntz eskubideak kaltetzen, zinegotzi guztion eskubideak urratzen ditu, eta ondorioz, urduliztar guztionak. Gure herrian PNVk ez du Urkijo erregeordearen beharrik izan, eta zu-

zen-zuzenean baztertu du euskara, aktak erdara hutsean eginez», kritikatzen du EH Bildu koalizioak. Urdulizko alderdi nagusiaren jarrera «onartezina da gure hizkuntzarekiko, gurekiko eta urduliztarrekiko», EH Bilduren ustez, «gure hizkuntza ez da jaietan soilik defendatzen; gure hizkuntza egunerokotasunean defendatu eta bermatu behar da. Bestalde, ezin da ahaztu Udalak eredugarria izan behar duela eta irudi kaxkarra ematen ari zaiela herritarrei euskara erdararen alde baztertzeko duenean, udalbatzako aktetan bada ere». Horregatik, EAJri «exijitu» diote urduliztarren hizkuntz eskubideak bermatzea «eta legeak agintzen dion bezala aktak euskaraz egin ditzala». Era berean, urduliztarren eskubideak eta euskara defendatzeko «beharrezko diren neurriak» aztertzen dabil EH Bildu. Besteak beste, Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Arartekoarengana joko du, «egoera latz horren berri» emateko.

Udal Gobernuaren iritzia

Urdulizko udal arduradunek uko egin diote gaiaren inguruko deklarazioak egiteari, HIRUKARI Udaleko prentsabulegoak jakinarazi dionez. ◀

Osasunsarea proiektua aurkeztu dute

Urdulizko Udalak Osasunsarea proiektua azaltzeko batzarra egin zuen eguaztenean, nagusien etxean. Azpimarratu zutenez, helburu nagusia da «herritarren ohitura osasuntsuak sustatzea». Osasun-sare bat sortuko dute, eta osasuna bultzatzeko ekintzak proposatuko dituzte. Herritarrek ere proposamenak egiteko aukera izango dute. Aurreikusi ere egin dute «ohitura osasuntsuak sustatzeko baliabideen mapa bat» egitea.

Elkarlana

Ekimena elkarlanaren emaitza da, hainbat erakundek Talde Sustatzailerak osatu baitute ekimena bideratzeko aldera. Erakundeen artean daude Urdulizko Udala, Osasun Zentroa, Uribe Eskualdeko Osasun Publikoa, eta Mankomunitateko Gizarte-zerbitzuak eta Adikzioak Prebenitzeko eta Osasuna Sustatzeko zerbitzuak. Lantaldeak izandako bileren eta zehaztu dituen helburuen berri eman zuten jendarean Javier Bilbao Urdulizko alkateak, Maria Luz Marques ESI Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko gerenteak eta Concha Castells Bizkaiko Osasun Publikoko zuzendariordeak. ◀

Lemoiz

Familia ugariarentzat hobaria



Familia ugaria dutenek %90eko hobaria izango dute 2016an Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, Lemoizko bizilekua ohikoa bada. Eskerak hila- ren 30era aurkez daitezke. NANaren, familia ugariaren tituluaren eta etxearen titulartasunaren dokumentuaren kopia entregatu beharko dituzte. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Eleberria, Armintzan oinarritua

Abandonatuta dagoen zentral nuklear bat, eta hainbat «ustekabeko» hilketa. Horixe da Aritza Bergara idazle sestaoarraren oinarria bere eleberri berrirako: *Olas negras*. Eleberri beltza, beraz. Bergarak Lemoizko Armintza auzoan kokatu ditu kontakizunaren nondik norako guztiak. Aurretik euskal mitologiaren

inguruko hainbat lan egin ditu Bergarak, baina oraingoa generoa aldatu, eta eleberri beltzera egin du salto. Azaroaren 21ean aurkeztu behar zuen liburua Armintzan, baina hilaren 27ra arte atzeratu behar izan du aurkezpena; 20:00etan izango da, Portu Zaharra tabernan. Eleberria 16 euroan eros daiteke, Elkar liburu-dendetan. ◀

USKARAZ
Azaroaren 29an
29 de Noviembre

TRIKI KANTU-DANTZA HERRI BAZKARIA
POTEOK

Eleiz enparatzen 12:00etan
En la plaza de la iglesia a las 12:00

Eleiz enparantzen 15:00etan
En la plaza de la Iglesia a las 15:00

Txartelen salmenta Kultur-etxean
Venta de tickets en la Casa de Cultura

(15 €)

Izena emateko azaroaren 20a baino lehen
Último día para apuntarse el día 20

BFA DFB

IZENAK

GOBIERNO VASCO

GOBIERNO VASCO

Kumara
zentroa

94 657 15 24
685 764 662

Gipuzkoa Kalea, 2
48610 URDULIZ

info@kumarazentroa.com

www.kumarazentroa.com

TERAPIAS ALTERNATIVAS Y ESTÉTICA



Gure esku

ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA
Legelaria

Erabakiaren aroa Katalunian... eta Euskal Herrian?

Erabakiaren aroa hasi da Katalunian. Bai, halaxe da. Irailaren 27ko hauteskundeetan Kataluniako herritarrek egitasmo independentista sostengua eman zioten, eta horri esker, Parlamenteko gehien-go osoak, zilegitasun osoz, Espainiatik deskonektatzeko prozesua abiatu du, Azaroaren 9ko Adierazpena onartuz. Adostasunaren indarraren erakustaldi eder horrek, bide berriak zabaltzea lortu du, Espainiarekiko mendetasunari eta autismo politikoari aurre eginez.

Horren aurrean Estatuaren erantzuna betikoa: Espainiako legea aplikatzea, Espainian Demokraziak eskuak lotuta izango babilu bezala.

Eta orain zer? Hori da denok buruan dugun galdera. Bada, irtenbide bakarra dago: Kataluniak legezko erreferendun bat egitea eta Espainiak edo Kataluniak berak legezko bidea ematea emaitzari. Hori da irtenbide arrazional eta demokratiko bakarra eta olia bezala zabaltzen ari dena inteligentzia apur bat dutenen guztien artean. Legelari espainolak jadanik ari dira horretaz ohartarazten, ez baitago beste biderik.

Gakoa, ordea, tempusean dago. Noiz izango da erreferendun hori eta nola iraunarazi bien bitartean Espainiako presioaren aurrean? Espainolek erreformaren baitan sartu nahi dute erreferendunaren aukera, Kataluniako prozesua ahultzeko asmoz. Kataluniako alderdi independentistak, ordea, lehenbailehen egin nahi dute, 18 hilabeteetan.

Euskal Herrian ere erabakiaren aroan bizi gara eta Kataluniako zipritzinak busti egingo gaituzte, dudarik gabe. Kataluniak bi-lau urteko epean, bere legezko erreferenduma egingo badu, non egon nahi dugu euskal herritarrok? Gai izango ote gara elkarrekin adosteko Zer, Nola eta Noiz erabaki? Gure esku dago, lagunok. ◀

Uribe Kosta

Eraso gehiagorik ez!



Uribe Kostako Emakumeen Kontseiluak egindako elkarretaratzea. © SOPELAKO UDALA

Azaroaren 25ean herrietan batzera deitu du Mankomunitateak; hilaren 21ean topaketa egongo da Urdulizen.

Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak; besteak beste, lagun izango dituzte denetan Emakumeen Hitza (Barrika), Itzartu (Sopela), Inola (Urduliz) eta Berangoko andrazkoen elkarteak. Hasteko, zapatu honetan, azaroak 21,

Uribe Kostako VII. Emakumeen Topaketa egingo dute Urdulizko Torrebarrri kaleko 1. zenbakian, Emakumeen Etxean, 09:00etatik aurrera; Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak, Maria Isabel Landa Mankomunitateko presidenteak eta Javier Bilbao alkate urduliztarrak egingo dute berba. Horrez gainera, *Entre nosotras, buscando la sonoridad. Pactos entre mujeres* berbaldia eskainiko du Elo Mayo generoberdintasunean adituak. Aurretik ize-na eman (berdintasuna@uribekosta.org) beharra dago.

Astelehenerako, azaroak 23, indarkeria sexistagatik hil dituzten andreei omenaldia egitera deitu du Plentzia-ko Udalak; hitzordua 19:00etan jarri du, Goñi Portal kultur etxean. Aza-

Berango

11:30 Elkarretaratzea, metro-geltokiaren ondoan.

Barrika

12:00 Elkarretaratzea, udaletxean.

Plentzia

12:30 Elkarretaratzea, udaletxean.

Gorliz

13:00 Elkarretaratzea, udaletxean.

Lemoiz

13:30 Elkarretaratzea, udaletxean.

Urduliz

18:30 Elkarretaratzea, kultur etxean.

Sopela

19:00 Elkarretaratzea, udaletxean.

roaren 25ean, berriz, Uribe Kostako Mankomunitateak zazpi kontzentrazio deitu ditu: 11:30ean, Berangon; 12:00etan, Barrikan; 12:30ean, Plentzian; 13:00etan, Gorlizen; 13:30ean, Lemoizen; 18:30ean, Urdulizen; eta 19:00etan, Sopelan. Herrietako udal-teen aurrean batuko dira, Berangon (metro-geltoki ondoan) eta Urdulizen (kultur etxean) izan ezik. Egun berean, hainbat antzezlan eta mahai-inguru (agendan begiratu) egongo da, kontzentrazioen ostean, Barrikan, Sopelan eta Urdulizen.

Azkenik, azaroaren 26tik aurrera, zine-forumak, tailerrak, antzezlanak, ipuin-kontalaria eta autodefentsarako ikastaroa egongo dira Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan. ◀

Unibertsitatea

Hezkuntza kritikorako jardunaldiak eta ikasle-greba egingo dituzte

Orain dela urte bi Herri Unibertsitatea izeneko proiektua martxan jarri zuten campusean; «ordutik hona, ikasleek aurrerapau-soak ematen jarraitu dute, eta etengabe dabilta prozesu hori elikatzen», adierazi du Leioako Ikasle Mugimenduak. Aurten, egitasmo horri lotuta, eta «gure etorkizuna eraikitzen jarraitzeko bidean», hezkuntza kritikorako jardunaldiak antolatu dituzte fakultate denetan. Azaroaren 25era bitartean, ikastegi bakoitzean lantzen dituzten edukiak «kritikoki» aztertze-ko aukera

egongo da; «jakintza kolektibizatze-ko espazio» bihurtuko dute campusa hurrengo egunetan. Azaroaren 16an hasi ziren jardunaldiak.

Ikasle-greba, Bizkaian

Bilboko Unibertsitateetako Ikasle Asanbladek (BUIA), Leioako Ikasle Mugimenduak (LIM) eta Bizkaiko Ikasle Abertzaleek deituta, lurralde osoko greba egingo dute azaroaren 26an, eguna. Hala, «fakultate eta ikastetxeetako borrokak batu eta kaleratatzeko deia» egin dute hiru

erakundeek; ikasleentzako baldintza duinak eskatuko dituzte. BUIA, LIM eta Bizkaiko I Aren arabera, «egungo hezkuntza-sistemak ez ditu ikasle- eskubideak bermatzen». Gaineratu dutenez, «hezkuntza-sistemaren p-pera ezinbestekoa da sistema kapitalista eta patriarkalaren biziraupenerako». Testuinguru horretan kokatu dituzte LOMCE eta EU2015 egitasmoen «inposizioa». Greba-egunean bertan, herrialde osoko mobilizazioa egingo dute Bilbon, *Inposaketen aurrean, ikas baldintza duinak!* goiburupean. ◀



Jarduera ugari edukiko dituzte Getxoko Komiki Azokara hurbiltzen direnek. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Ekitaldi batzuk

Azaroak 20, barikua

18:00 Komiki-tailerra, euskaraz.

19:00 2015eko omenaldia eta sari-banaketa: Juan Gimenez eta Zulet.

19:15 Juan Gimenezegaz, topaketa.

Azaroak 21, zapatua

18:00 Komiki-tailerra, euskaraz.

18:00 Topaketa, Jessica Abel eta Matt Madden komikilariakaz.

19:00 Topaketa, Eric Reynolds (Fantagraphics Books) eta Max komikilariakaz.

20:00 Topaketa, Dave Cooper, Johnny Ryan eta Albert Montey komikilariakaz.

Azaroak 22, domeka

11:15 *Mis libros ilustrados* berbaldia, Toti Martínez de Lezeagaz.

17:45 Aurkezpena: *Kisses / Besos / Musuak*.

Partaideak: Pi Ortiz (egilea) eta Sergio Sanchez Isasi (argitaratzailea).

18:00 Komiki-tailerra, euskaraz.

18:15 Mahai-ingurua: *El comic vasco mas alla de nuestras fronteras*.

info+: www.salondelcomicdegetxo.net

Zatoz binetaren mundura!

Getxoko Komiki Azokaren 14. edizioa azaroaren 20tik 22ra izango da; aurten, 60 salmenta-postu egongo dira Areetako Xake plazan ipinitako karpan.

Getxoko Komiki Azokaren 14. edizioa egingo dute aste-akabu honetan; aurten, 60 salmenta-postu aurkitu ahal izango dituzte bisitariek Areetako Xake plazako karpan. Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (domekan, 20:00ak arte) egongo da zabalik; sarrera 1,50 euroan izango da. Merkataritza-guneagaz batera, azokan jarduera

ugari egongo dira; binetaren mundua atsegin dutenak nahitaez batzeko gunea izango da Getxoko Komiki Azoka.

Ohikoa denez, artista ospetsu ugari elkartuko dira bertan; horietako asko nazioarte mailan ere ezagunak; berbaldiez eta aurkezpenez gainera, sinatze-txandak egingo dituzte. Aurten, besteak beste, Eric Reynolds istoriogile estatubatuarra egongo da; Fantagraphics argitaletxearen zuzen-

daria da; komiki independentearen eta alternatiboaren arloan, markarik ospetsuena da hori nazioartean. Dave Cooper kanadiarra ere aipatu behar dago, *Futurama* animazio-telesail

Sinatze-txandak egingo dituzte bertoko zein kanpoko komikigile ezagun askok

famatuaren estetikaren arduraduna. Sari garrantzitsuak lortu ditu artista horrek; barbarako, *Harvey* izeneko ga-

raikurra. Bere lan ezagunen artean, *Escombros* eta *Flujo* nabarmentzekoak dira. Johnny Ryan marrazkigile amerikarra ere Areetan egongo da; *Vice* aldizkarian eta *Pudridero* saga ezagunean ospea lortu zuen egileak, umore garratzaz baliatuta. Gainera, Dave Cooperregaz elkarlanean, fantasia eta umore burubakoa nahasten dituen *Pig Goat Banana Cricket* animazio-saila sortu du Nickelodeon telebista-katearentzat. Horiei gehitu behar zaizkie Peter Milligan britaniarra eta Jessica Abel feminista estatubatuarra. Azken hori, komikiaren munduan erreferentzia bilakatu da. ◀

Landare inbaditzaileak ezagutzera joango dira

Domeka honetarako, azaroak 22, hurrengo berbatxangoa antolatu dute Erandioko Berbots, Sopelako Aitxu eta Getxoko Egizu elkarteek. Oraingoan, landare inbaditzaileak ezagutuko dituzte, Gorka Menendez Baceta etnobotanikari galdakaoztarrak gidatuta. Autobusa 09:00etan abiatuko da Alzaga-ko ontziralekutik; 09:15ean, Telletxe plazako galelekuan hartuko ditu berbalagun algotarrak, eta 09:30ean, Sopelako eliza aurrean, sopeloztarrak. Txangora joan gura dutenek 3 euro ordaindu beharko dituzte; leku-kopurua mugatua da. Beraz, arin eman behar-



Panpa-lezka. © LEMOIZKO UDALA

ko duzue izena. Bisita 10:00etatik 14:00etara izango da, Sopelako hondartzetan eta eskualdeko padura batean, antolatzaileek azaldu dutenez. ◀

info+: egizu.eus

Bat-batean bertso musikatuaren emanaldiaz gozatzeko aukera, Astrabuduan

Berbots Erandion Euskaraz elkarrekin antolatuta, bariku honetan, azaroak 20, *Bat-batean* bertso musikatuaren saioaz gozatzeko aukera egongo da Astrabuduan. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Josu Murueta kultur etxean; sarrera, doan. Ekitaldian, Oskar Estanga eta Jon Martin bertsolariek parte hartuko dute. Emanaldian, berba denak bat-batekoak izango dira, lekura egokituak, Lanku bertso-zerbitzuak azaldu duenez. Musika-piezak, osterak, aurretik aukeratuta daude, «ohiko eta ez ohiko doinuak munduko musiken aire berezietan eginez». Bertsoek musika-gaz bat egingo dute. ◀

Abenduaren 30era arte, maitasun-gutunen lehiaketara aurkezteko epea, Leioan

Maitasun Gutunen XVII. lehiaketa antolatu du Leioako Udalak; abenduaren 30era arte zabalik egongo da lanak aurkezteko epea. Euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke. Sari-keta lau kategoriatan dago bananduta, adinaren arabera: 18 urte beherakoak, 19 urtetik 30 urtera bitartekoak, 31 urtetik 55 urtera artekoak, eta azkenik, 56 urtetik gorakoak. Lehenengo saria 250 eurokoa izango da, eta bigarrena, 150 eurokoa; biak, garaikur eta diplomagaz; otsailaren 12an emango dira, 19:00etan Kultur Leioan egingo den ekitaldian. ◀

info+: www.kulturleioa.com



URIBE KOSTA

Indarkeria matxista salatuko dute herritarrek

Emakumeenganako indarkeria salatzeko asmoz, ugariak izango dira azaroaren 25ean gure herrietako kaleak eta plazak beteko dituzten mobilizazioak; eskualdean ere ez dira gutxi erakunde publikoek, emakumeen elkarteek edo eragile feministek ipinitako hitzorduak. Uribe Kostako Mankomunitateak zazpi kontzentrazio deitu ditu: 11:30ean, Berangon;

12:00etan, Barrikan; 12:30ean, Plentzian; 13:00etan, Gortizen; 13:30ean, Lemoizen; 18:30ean, Urdulizen; eta 19:00etan, Sopelan. Herrietako udalletxearen aurrean batuko dira, Berangon (metro-geltoki ondoan) eta Urdulizen (kultur etxean) izan ezik. Erandion, berriz, Altzagako Iraitaren 23a (12:00etan) eta Astrabuduko Josu Murueta plazetan (13:00) bil-

duko dira, bertoko hiru emakumeen elkarteek eta Udalak deituta. Leioan, 12:15ean jarri dute hitzordua, Boulevardean, Udalak eta Andrak taldeak. Azkenik, Areetako Gizatiar elkarteak 19:30ean egingo du elkarretaratzea, Bizkaiko Zubiko plazan; Itzubaltzeta-ko Emakumeen Asanbladak, ostera, 20:00etan hasiko du manifestazioa, Santa Eugenia plazan. ◀

2015/11/19 - 17:30

Estos hijos no me hacen caso: ¿cómo lo hago? berbaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Uribe Kostako Mankomunitateak antolatuta, Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/19 - 19:00

Erandioko Udal Musika Eskolaren kontzertua
Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Santa Zezilia eguneko emanaldia. Doan.

2015/11/19 - 19:00

Katixa Agirereren berbaldia
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Sopelako Irakurle Klubak antolatuta. *Atertu arte, ibxaron* liburua aurkeztuko du. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/11/19 - 19:30

Espalda sana berbaldia
Algortako kultur etxea | Getxo
Mugabarik elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/19 - 20:00

Ez gara Palestinaz ari ikuskizuna

Azebarri kultur elkartea (Algorta) | Getxo
Getxoko Udalaren Berdintasun eta Euskara zerbitzuak antolatuta. Bertsoa, antzerkia, poesia eta musika batzen ditu. Sarrera, doan.

2015/11/19 - 20:00

Nevada pop-rock taldea
Silver's Tavern (Algorta) | Getxo
Getxo Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2015/11/20 - 2015/11/22 - egun osoan

Getxoko XIV. Komiki Azoka
Xake plaza (Areeta) | Getxo
Egitarrua: www.salondelcomicdegtxo.net
Sarrera: 1,50 euro.

2015/11/20 - 19:00

Neska eta mutilen artean: mundu bat saioa

Erandiogoikoko gizarte-etxea | Erandio
Alberto Bargas ipuin-kontalariagaz. 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/11/20 - 19:30

Erandioko Musika Bandaren 50. urteurreneko kontzertua
Altzagako azoka zaharra | Erandio
Abesbatza gonbidatuak: Mendibaiarte eta Altzaga. Sarrera, doan.

2015/11/21 - 19:00

Lirain abesbatzaren kontzertua

Andra Mari eliza | Gortiz
Santa Zezilia ospatzeko. Sarrera, doan.

2015/11/21 - 20:00

Chely eta Miguel Martinen umorezko bakarriketak
Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2015/11/21 - 20:00

Ondarreta abesbatzaren kontzertua
Areetako musika-eskola | Getxo
Santa Zezilia ospatzeko. Sarrera, doan.

2015/11/22 - 10:00-13:00

Martxa nordikoa
Astondo | Gortiz
Izena emateko: 946 774 348 (turismo-bulegoa).

2015/11/22 - 17:00

Los Boxtrolls filma
Areetako musika-eskola | Getxo
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

2015/11/22 - 18:00

Fucsia la minibruja filma
Berango Antzokia | Berango
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/22 - 19:00

Bideo-forum feminista
Branka taberna (Itzubaltzeta) | Getxo
Itzubaltzetako Emakumeon Asanbladak antolatuta. Sarrera, doan.

2015/11/23 - 19:00

Omenaldia, indarkeria
sexistagatik hil dituzten emakumeei

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Plentziako Udalak antolatuta. Sarrera, doan.

2015/11/23 - 19:00

La violencia sexista en el ámbito laboral berbaldia
Algortako kultur etxean | Getxo
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/23 - 19:00

El camino Belinda antzerki-foruma

Euskal Herriko kondairak, Algortan

Izenak izana: *Euskal Herriko ipuin eta kondairak* izenburuko saioa eskainiko du eguen honetan, azaroak 19, Eneko Haritza ipuin-kontalariak. Hitzordua Villamonteko kultur etxeko haur-liburategian jarri dute, 18:00etan; doan. ◀

Herria ezagutzen, tribialaren bitartez

Barikuetan Jai, umeakaz euskaraz jo-laste ko egitasmoa, bueltan izango da bariku honetan, hilak 20. Oraingorako, tribial-partida antolatu dute. Jolasa 17:30etik 19:30era egingo dute, Kultur Leioaren inguruan. ◀

Komiki tailerra euskaraz, hiru egunez

Getxoko Komiki Azokak iraun bitartean, binetak egiten ikasteko aukera egongo da. Eskolak barikutik domekara izango dira, 18:00etatik 19:30era, Aree-tako Xake plazako karpan. ◀

info+: www.salondelcomiddegetxo.net



Goio (Javier Barandiaran) eta Imanol (Ander Lipus) osabak, Maddi (Malka Etxekopar) eta amama (Kristiane Etxaluz). © ARTEDRAMA

Etxekoak antzezlanak ikusgai, Leioan

Huts Teatroak Artedrama Kultur Leioako konpainiaren maguean egindako bigarren sorkuntza da *Etxekoak* euskarazko antzezlanak; Jon Gerediagak idatzi eta Ander Lipusek zuzendu dute. Maitasuna abiapuntu, immigrazioaren gaia jorratzen du, umore-kutsua emanez. ◀

Noiz: Azaroak 20, barikua
Ordua: 20:30
Non: Kultur Leioako entzungela (Leioa)
Sarrera: 10 euro

2015/11/20 - 19:30

Bat-batean bertso musikatuak

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatuta. Parte-hartzaileak: Oskar Estanga eta Jon Martin bertsolariak. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/11/20 - 20:00

Indarkeria matxistaren kontrako poteoa

Txiskales taberna (Itzubaltzeta) | Getxo
Itzubaltzetako Emakumeon Asanbladak antolatuta. Parte-hartzea, libre.

2015/11/20 - 21:00

El congreso filma

Areetako musika-eskola | Getxo
Zine-klubaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

2015/11/21 - 11:30etik aurrera

Kalezulo gaztetxeko laugarren urteurrenaren jaia

Herria eta gaztetxea (Altzaga) | Erandio
Informazio gehiago: hiruka.eus/agenda

2015/11/21 - 09:00-14:00

Uribe Kostako Emakumeen VII. Topaketa

Emakumeen Etxea (Torrebarri, 1) | Urduliz
Doan, aurretik izena emanda: beirdintasuna@uribekosta.org

2015/11/21 - 11:00

Ipuin-kontalarien saioa, ingelesez

Kultur Leioako liburutegia | Leioa
Kids&Us enpresagaz. Sarrera, doan.

2015/11/21 - 18:00

Marco Macaco filma

Kultur etxea | Urduliz
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2015/11/21 - 19:00

Olas negras liburuaren aurkezpena

Portu Zaharra taberna (Armitza) | Lemoiz
Aritz Bergara idazleagaz. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/21 - 19:00

Cómicas atribuladas buscan obra antzezlanak

Berango Antzokia | Berango
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Fadurako areto nagusia (Algorta) | Getxo
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Mujeres con Voz elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/23 - 20:00

Muni 20 urte espetxean goiburuko manifestazioa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo
Albano Arri Pascual preso politiko algotarra aska dezaten aldarrikatzeko martxa.

2015/11/24 - 19:00

Los campeones del 4 1/2 liburuaren aurkezpena

Algortako kultur etxea | Getxo
Santiago Agirre idazleagaz. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/24 - 19:00

El ciego de Olabe liburuaren aurkezpena

Kultur Leioako prentsa-aretoa | Leioa
Pedro Zarrabeitia idazleagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/24 - 19:30-21:00

Argazkilaritzaren historiari buruzko ikastaroa

Atxutegi kalea, 15 | Astrabudua
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2015/11/24 - 20:00

Una segunda madre filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo zine-forumaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2015/11/25 - 17:30

La fuente de las mujeres filma eta mahai-ingurua

Udaletxea | Sopela
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/25 - 19:00

La máquina del dueño: masculinidades antzezlanak

Kultur etxea | Urduliz
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Plataforma Tirantek antzetzua. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/11/25 - 19:30

Lazos que duelen: madres de hijos violentos mahai-ingurua

Goierriko Kultur etxea | Barrika
Emakumeenganako indarkeriaren kontra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Maker Faire Bilbao

• WWW.BILBAOMAKERFAIRE.COM •

TECHNOLOGY
IS THE NEW
ROCK 'N' ROLL

- AZAROAK -
20 BARIKUA / **21** ZAPATUA / **22** DOMEKA
Bilboko gailera-fabrika ohia **ZORROZAURRE**



Politikaren Basoa

KOLDO ITURBE MENDILIBAR
EAJren bozeramailea

Memoria: Nork ez dau gura bakea

Biktimez eta memoriaz berba egitea tokatu jaku azken aldi honetan. Barriz be konturatu naz zein urrun dagozan ondino mutur biak, eta zein gatzat dan borondate guztiak batzea biktimen errokonozimenduaren aldeko ekitaldi batean.

Uste dot oso erraz ahazten dogula zein garai gogorak bizi izan dituan gure euskal gizarteak, zein gogorra izan dan herritar batzuentzat egoera latz ha, eta gaur egun bizi dogun «bake» egoera hau dala danok amesten gendua.

Orain aurrean daukagun «Bake» egoera honetan, errazagoa emoten dau biolentzia barik arazoari konponbide bat topatzea, baina alderdikarien interesek eta biktimen erabilera gaiztoek dana aldrebesten dabe.

Alderdi Popularrak ez dau aldatu gura bere jarrera, geldirik dirau, edo hauteskundeak diralako edota biktimen elkarte batzuen eraginez, aurrepausorik emoten ez dualako.

Ezker abertzalea be ez da mugitzen, ez onartzeagatik egindakoak inoiz ez ebala izan justifikaziorik edota ez aitortzeagatik egindako kaltea.

Eta erdian beti bezala EAJ, danon artean borondateak batu nahian, indarrak batzeko asmoz, elkarrizketaren bidetik, eta jarra irekia izanik. Ziur asko euskal gizarteak gura dauan bidetik, gaurko egoera egonkortzeko asmoz; hori dalako gure helburu nagusia, guk geuk eta gure seme-alabek normalizazio baten bidetik behin betiko bakea sendotzeko. Nork ez dau gura halako egoera bat?

Bakarrik ikusi gura ez dauanak eta aldatzeko intentziorik ez daukanak jarraitzen dau berean, herri honeri lepoa emonez eta bide zikinduz.

Ez dagigun ahaztu: biktima nagusia euskal gizartea izan da, eta inork ez deusku barkatuko bere aldeko errekonozimendua ez lortzea, **BAKEA**.

Euren antzerki-jaialdia daukate umetxoek



Egundoko aukera ematen du KA planetak, ume txikiek ingurua iker dezaten. © KULTUR LEIOA

Txiki, Txiki, Txikia jaialdiak umeentzako apropos sortutako antzezlanak eskainiko ditu, bigarren aldiz; Getxon, Sopelan eta Leioan ere egongo dira saioak.

Ez da erraza ume txikientzat apropos sortu eta egokiak diren lanak topatzea. Horixe da Txiki, Txiki, Txikia festibalak betetzen duen hutsunea: sei hilabete eta 4 urte bitarteko umeak dauzkaten sendiei arte eszenikoez gozatzeko aukera eskaintzen die. Aurten, jaialdiaren bigarren edizioa egingo da; besteak beste, Getxon, Sopelan eta Leioan egongo dira saioak.

Jaialdian hiru lan taularatuko dira: *Planeta Ka*, Imaginart konpainia katalanarena; *Nest*, Belgikako Theater de Spiegelek antzeztua; eta *Rawums*, Alemaniako Florschütz & Dohnert-ena. Azken lan horrek Berlin Ikarus saria eskuratu zuen 2008an; gazteei zuzen-

teak beste, Getxon, Sopelan eta Leioan egongo dira saioak. Jaialdian hiru lan taularatuko dira: *Planeta Ka*, Imaginart konpainia katalanarena; *Nest*, Belgikako Theater de Spiegelek antzeztua; eta *Rawums*, Alemaniako Florschütz & Dohnert-ena. Azken lan horrek Berlin Ikarus saria eskuratu zuen 2008an; gazteei zuzen-

Getxo

Azaroak 20, barikua

17:00 / 17:45 / 18:30

Planeta Ka antzezlan, Algortako kultur etxean. Testu barik. Sarrera: 3 euro.

Sopela

Azaroak 21, zapatua

12:30 / 18:00

Nest antzezlan, Kurtzio kultur etxean. Testu barik. Sarrera: 3 euro.

Leioa

Azaroak 21, zapatua

12:00 / 12:45 / 17:30 / 18:45

Planeta Ka antzezlan, Kultur Leioako entzungelan. Testu barik. Sarrera: 5 euro.

Azaroak 22, domeka

12:30 / 18:00

Rawums antzezlan, Kultur Leioako entzungelan. Testu barik. Sarrera: 5 euro.

dutako ikuskizunik apartena saritzen du horrek.

Formatu txikiko lanak dira. Hurbil-hurbiletik antzezten dituzte, eta, hala, umeek kanpoko ikusle izateari uzten diote, istorioan bertan murgiltzeko, antolatzaileek azaldu dutenez. Txikienek ulertu eta gozatu dezaten helburuagaz sortu dira; antzerkia txikitatik bizitzea eta erakargarri egitea bilatzen dute, antzerki-mundua ezagutzuz gozatzeko. Txiki, Txiki, Txikia iaz sortu zuten Katalunian, El Mes Petit de Tots jaialdiaren senide txiki legez.

Urtebetetze-festarako izen-emateak, zabalik

Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE), Bizarra Lepoanek, Egizuk, Azebarrik eta HIRUKAk urtebetetze-festa egingo dute azaroaren 28an, zapatua. Hala, egunean bertan izango diren argazkilaritza-tailerrean eta ginkanan izena emateko aukera aurretik zabaldu dute, zapatu horretan ere apuntatzerik egongo bada ere; parte-hartzaileen kopurua aurreikus-tea da helburua. Besteak beste, argazkilaritza-ikastarorako, partaide bakoitzak kamera bat eroan beharko du. Ginkanan, oster, famili osoak (izena ematea) jolastea gura dute.

izena emateko: info@bizarralepoan.org
944 910 387



OPA DIZUEGUNA OSPATUZ!

IPUIN-KONTALARIA
BERBA-KAFEA ERAKUSKETA
ARGAZKIGINTZA-TAILERRA
FAMILIENTZAKO GINKANA
BERTSO-POTEOA
HERRI-BAZKARIA
ETA ASKOZ GEHIAGO!!!!!!

AZAROAK 28
ALGORTAN



Liburuklik-sarean daude Getxoko udal liburutegiak

Getxoko Udal Liburutegiak daborduko sartu dira Liburuklik euskal liburutegi digitalaren sarean. Plataforma horren bitartez, EAEko liburutegien ondareari eutsi gura diote; mota askotako argitalpenak ipini dituzte nazioartean publiko orokorraren zein ikertzaileen eskura.

Getxoko liburutegiek zenbait argitalpen ipini dituzte plataforman; horien artean, *Galea* aldizkaria. Ramiro Pinilla idazle getxoztarra buru zuen taldeak 1982an abian jarri zuen argitalpena; denora, 345 zenbaki plazartu zituen. 2000. urteko urrian itxi zuten, erasoia jaso ostean.

info+: www.liburuklik.euskadi.net

«Jakintzak elkarbanatzea da ekimenaren helburuetako bat»

Jon Agüero Lopez

getxoztarra da Bilbao Maker Faire azokaren antolatzaileetako bat.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Azaroaren 20tik 22ra bitartean, teknologia berriak, fabrikazio digitala eta «zukeu egin» filosofiagaz bat egiten duten asmakizunak eta proiektuak topatzeko aukera egongo da Bilboko Zorrotzaurre auzoko gailetta-fabrika ohian. Orain urtebete bilbotartutako Jon Agüero getxoztarra dugu Maker Faire azokaren antolatzaileetako bat. Jakintzak elkarbanatzea da ekimenaren helburu nagusietako bat; feriarene hirugarren edizioan, ehun egitasmo baino askoz gehiago egongo dira ikusgai.

Zein helburu dauka Bilbao Maker Faire ekimenak?

Komunitatea sortzea eta teknologia irekiak ezagutzera ematea dira helburu nagusiak.

Zenbat parte-hartzaile egongo da aurtengo azokan?

Gero eta mugimendu gehiago ikusten da. Pixkanaka-pixkanaka, hiru urtean, *maker* (sortzaile/egile) sarea handitzen joan da, Euskal Herrian zein Estatu mailan; jende, proiektu zein laborategi berriak azaldu dira. Aurten, ehun egitasmo baino gehiago ikusteko aukera izango dugu.

Bertaratuko denak zer aurki dezake halako azoka batean?

Esan bezala, proiektu eta ikerketa irekiak ikusteko aukera izango du. One-



Orain urtebetera arte, Areeta eta Itzubaltzeta/Romo artean bizi izan da Agüero; gaur egun, Bilbo du bizileku.

rako ala txarrerako, elektronika, programazio eta fabrikazio digitalaren inguruko proiektuak izango dira nagusi; baina, nekazaritza, biologia edo artearekin zerikusia duten proiektuak ikusteko aukera ere izango dugu.

Zein proiektu edo asmakizunak piztu dizu arreta gehien?

Egia esan, nahiko zaila egiten zait proiektu bakarra aukeratzea. Agian, *Little Devices Lab* izeneko aukeraturiko nuke; nire zaletasunekin zerikusi handirik ez izan arren, mota horretako mugimenduak munduan sor dezakeen inpaktua interesgarria iruditzen zait. Ikerketa-proiektu horrek medikuntza-tresna merke eta irekiak gartzten ditu.

Nondik dator azoka antolatzeko ideia?
Mugimenduaren ezaugarri garrantzi-

tsuenetariko bat jakintzak elkarbanatzean datza; Interneten komunitate ugari dauden arren, ikusi dugu

“Betidanik izan dut gauzak konpontzeko edo sortzeko zaletasuna eta jakin-mina”

garrantzitsua dela komunitate horien bertsio fisikoak izaten hastea. Horrez gain, mugimendutik kanpo daudenei gure proiektuak erakusteko aukera bikaina ematen digu.

Zer bilakaera eduki du hiru urteotan?
Egindako ekintzei esker, gero eta jende gehiago dabil tresna irekiak erabiltzen edo sortzen; azoka handitu da.

Antolatzailea izateaz gainera, sortzailea ere bazara. Nondik datorkizu zaletasun hori?

Betidanik piztu dit jakin-mina aparatuek zelan funtzionatzeko duten, eta gauzak konpondu edo sortzeko zaletasuna ere beti izan dut. Ikuspuntu filosofikoago batetik, teknologia irekiek eskaintzen duten independentziak asko erakartzen nau; uste dut teknologia irekietatik etorriko direla teknologiak berak sortu dituen gatazken konponbideak.

Bilbao Maker Faire bezalako azokak beharrezkotzat jotzen dituzu?

Noski. Gure lanak ezagutzera emateaz gain, teknologia askeen garrantzia mahai gainean jartzeko aukera ezin hobe dela uste dut. ◀

info+: bilbaomakerfaire.com

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

Herrialdea

Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoen 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fixategi automatiko baten sartuko dira, erabiltzailearen harenan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Bezeroak erabiltzailearen aurkezpena baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko edo kentzeko bere eskubideak bere aldetik erabiltzeko erabiltzen ditu.

«Kubak AEBekiko bakea gura du, ez herrialdea saldu»

Cristina Escobar Dominguezek historia egin zuen pasa den maiatzaren 21ean. 54 urteko etenaldiaren ostean, AEBetako Etxe Zurian galderak egin zituen lehenengo kazetari kubatarra izan zen. 28 urte gaz, hurbiletik jarraitu die AEB eta Kubaren arteko elkarrizketei, Kubako telebistarentzat. Pasa den martitzenean, berbaldia eman zuen Leioako campusean.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Luzea izan zen 54 urteko etenaldiaren ondoren Etxe Zurian egin zenuen galdera: Barack Obamaren administrazioak benetan berba eman du Habanako Enbaxadaren funtzionarioek jarrera aldatuko dutela; Interesen Atalak gaur egun bultzatzen dituen erregimena aldatzeko programei eutsiko zaie, ala Kubako legeak errespetatuko dira?

Benetan, egindako galdera bi izan ziren horiek. Denera, lauzpabost egin nituen. Azkenak eragin zuen titular gehien: ea Obama Kubara joango zen. Komeni zen presidentearen bozeramaileak [Josh Earnest] kolore-tanta bat ematea, esanez Obama joango zela. Mundu osoan, itaun-erantzun hori ibili zen gehien hara-hona.

Hasierako galderei lotuta, zer erantzun zizuten?

Jarrera tradizionalagaz, oso erantzun koherenteak izan ziren. AEBetan, Obama presidentek du Kubari buruzko mezurik ezberdinena. Bere funtzionarioak oso tradizionalak izan ohi dira, eta aurreikusi daiteke Kubaren inguruan zelan egingo duten berba: AEBak Kubara zabaldu izanak Kuban demokrazia egonkorragoa eraikitzen eta askatasuna eroaten lagunduko duela, alegia. Uste dut AEBetakoak ez diren erreferenteak hartzen dituztela; Kubako iraultza dutela erreferente. Izan ere, AEBen menpe zegoen herrialde bati (Kubari) burujabetza ematea proposatu zion gure iraultzak. Gai horietan Kubako telebistarako berri-emailea naizenez, erantzunen zati handi bat jarri nuen telebistan, baina ez dago ezer

berririk ikuspegi horretan. Diote AEBak Kuba laguntzera doazela, baina benetan zabaldu badira izan da, batetik, nazioartean oso presio handiak izan dituztelako eta horrek eragina izan duelako, eta, bestetik, AEBek jaso duten isolamenduagatik. Haiek ahalegindu ziren Kuba bakartzen 1960an, blokeoa ezarri zutenean, baina azkenean haiek geratu dira baka-

“Era askotan kontsumitzen du informazioa jendeak. Estatuaren medio publikoak ez dira berriro izango iturri bakarra”

rrik, eta aldatu behar izan dute. Konturatu dira orain arteko politikak ez direla baliagarriak euren interesak Kuban bete daitezen.

Zelan baloratu duzu Kubaren eta AEBen elkarrizketen jarraipenean Washingtonen egin duzun lana?

Hasteko, oso garrantzitsua da kazetariok albistearen lekuan egotea. Hori AEBakaz oso zaila zen; oraindino bada, diru-arazoengatik. Baina, lehenengo aldiz, kubatar kazetari-talde indartsu bat izan gara AEBetan, kazetaritza egiteko. Aurretik Kalifornian egon nintzen, Habanako Unibertsitateko Komunika-

zio Fakultateko irakasle-laguntzailea ere banaizelako. Kaliforniara joandako taldean, hainbat kazetari ginen, baina arrazoi akademikoengatik joan ginen. Horregatik, elkarrizketetan, lehenengo aldiz indartsu joan gara kazetaritza egiten, Kubako delegazioagaz batera. Josefina Vidal zen elkarrizketa horietako burua, Kubako Kanpo Harremanetarako Ministerioaren AEBetarako zuzendari nagusia. Prozesuaren aurpegia izan da. Emakume oso profesionala, diplomatikoa eta komunikaziorako dohain handikoa da.

Oso garrantzitsua izan zen geu egotea albiste gertatzen zen lekuan, negoziazioetan, giza eskubideen inguruko bi herrien arteko eztabaidan, eta enbaxaden zabaltze-ekitaldietan. Bertan ez bazaude, besteek zutaz esango dutenaren menpe zaude. Bertan bazaude, abantaila duzu inork ez dizulako ziririk sartuko, bertan zaudelako jarraipena egiten. Kazetariok hori ondo zukutzen ahalegindu ginen, nire ustez. Ez dut nitaz berba egiten; nigaz etorri ziren talentu handiko lankideei buruz nabil: *Granma*, *Juventud Rebelde*, Kubako irratia, eta Cuba Debate digitala.

Negoiazioen jarraipenean duzun eskarmentua dela-eta, aurreikus ditzakezu hurrengo gertaerak?

Ez dut uste asko iragar dezakedanik. Kazetariok lortzen dugun informazioa beti da publikoa eta publikatua. Informazioa ez da hemen dakizuen baino askoz zabalagoa. Hortik aparte, nik sistema politiko estatubatuarra ikasi dut, eta horrek abantaila eman zidan iazko abenduaren 17an, mugimendu haiek hasi



zirenean. Historia apur bat ere badakit. Orain Obama dago, baina aurretik Bush bat egon zen, eta aurretik Clinton bat, eta aurretik beste Bush bat, eta horiek baino lehen, Reagan... Historia apur bat ezagutzen duzunean, badakizu ez duzula urteetako jarrera bat egun batetik bestera aldatzen. Engainagarria edo inozoa da pentsatzea orain lagunak garela eta dena konponduta dagoela. Gainera, haiek ez dute arazorik berba egiteko argi eta garbi: helburuak berberak dira, baina bitartekoak aldatu dira. Hau da, Kuba aldatzen jarraitu gura dute, AEBen bezalakoa izan dadin. Kazetariok usaimen ona izan behar dugu, baina kasu horretan, ez da gehiegi behar ulertzeko oraingo jokalekua zailagoa dela aurrekoa baino.

Lehen, ageriko gatazka bat zegoen, baina orain oharkabekoa da; metodo burutsuagoak erabiliko dituzte. Aurretik, eztabaida irekia zen; diskurtso politikoan eta zigor ekonomikoetan gauzatzen zen. Orain, eztabaidak jarraituko du, baina ezkutupean, ez zuzenean. Lehen zakarragoak ziren; iraultzaren aurkako taldeak edo Kubako Gobernuaren kontrakoak finantzatzen zituzten, kanpora begira Kuban balizko oposizio bat dagoela irudikatzen. Ez zen horrela, ez zeukaten programarik, ezta legimitaterik ere, baina hori eraiki zuten, eta konturatu dira dirua xahutu dutela. Pasa den abenduaren 17tik aurrera, batzuek errazagoa izango dela pentsatu arren, kontrakoa da. Uste dut zailagoa izango dela, AEBen eta Kubaren helburuak ez direlako aldatu. Kubak bake-egoera gura du, AEBakaz elkarbizitza izatea, baina ez dio

herrialdea saldu gura. Ez du bueltatu gura 1959 baino lehenagoko egoerara. AEBakaz borrokatzea du helburu, baina berdinetik berdiner, errespetuan eta berdintasunean. Hori zaila da, inoiz eratu ez den harremana eraiki beharra dagoelako. 1959 baino lehen eta ostean, ez da horrelako harremanik izan. Bestalde, gertatutakoa Kubaren garaipentzat jo daiteke,

“ Lehen AEBak zakarragoak ziren; iraultzaren eta Gobernuaren aurkako taldeak finantzatzen zituzten ”

Kuba ez delako aldatu; ez dio muzin egin den modukoa izaten jarraitzeari, gura duen bezala izateari.

Zeintzuk dira Kubako komunikabideen erronkak?

Raul Castro presidentea oso kritikoa izan da Kubako prentsagaz. Esan duenez, «ezin zaio sekretismoari eutsi, Kubako prentsak kritikoagoa izan behar du, zigorraren puntako kaskabiloa izan behar du», Jose Martiren esaldi famatuari erreferentzia eginez. Prentsak eredu sobietikoaren ukitu batzuk ditu, hainbat kontu koptatu zuelako. Gainera, Kuban gertatzen den gauza oro, nazioarteko prentsak beti hartzen du

porrotaren paradigma lege. Edonon gerta daitekeen, demagun trafiko-istripu bat, Kuban herritarrak infernuan bizi direla esateko baliatzen dute. Hori dela-eta, Kubako prentsa defentsiban egon da, herriko politikaren jarraipena egin duenean. Eta defentsiban zaudenean, ez duzu zure arazoez berba egiten; batasuna bultzatzen duzu, erasoaren aurrean. Ondorioz, komunikabideak arma ideologikoak izan dira, ez dute guztiz bete euren benetako funtzioa: talderik ahulenen ahotsa izatea, albiste sozialak ematea, informatzea, audientziarentzat baliagarri izatea. Hori da erronka.

Orain kazetariak buru-belarri dabilta aldaketak egiten, baina horretarako dirua beharrezkoa da. Ohiko komunikabideak Estatuak lagundutakoak dira, eta horren aurrean erantzuten dute. Kuba pobrea da; beraz, komunikabideak ere bai.

Beste arazo bat da funtzionario askok beldur diotela informazioa emateari. Hori aldatu beharra dago. Informazioa eman behar dute txarto dagoenaz eta ondo egiten denaz; askotan, horretaz ere ez baitugu informatzen, eta horrek desinformazioa dakar. Hala ere, jendeak konfiantza dauka prentsarengan, justizia sozialerako tresnatzat dute. Arazo bat dagoenean eta erakunde batek konpontzerik ez dutenean, prentsara bidaltzen dute gutuna. «Prentsan agertuz gero konponduko da», diote. Hori seinale ona da. Bestalde, ohiko medioek krisi positiboa dute, informazioa kontsumitzeko gero eta aukera gehiago dagoelako: Internet, flash-memorien bidezko informazioa, jendeak sakelako telefonoetan darabilen posta elektronikoa, edo Telesur, Caracasetik zabaltzen den nazioarteko kanala. Jendeak era askotan kontsumitzen du informazioa, eta Estatuaren medio publikoak ez dira berriro izango iturri bakarra, inoiz ez. Badira hori arriskutzat jotzen dutenak; nik aukeratatzat ikusten dut. Lehiakideak ditudanez, hobeia izan behar dut; erabiltzaileei eskaintza handiagoa egin behar diet; baliagarria izan behar dut, eta era sinesgarriagoan. Kuban, guzti-guztiok dakigu irakurtzen eta idazten. Doktoregoa atera arte hezkuntza dena jasotzeko aukera izan dugu, ogerleko bat ordaindu barik. Irizpidedun jende asko dago, oso kritikoa, gauzak interpretatzeko maila handiagaz. Horrelako audientziaren pareko medioak behar ditugu, eta gaur egun ez daude. Erronka da maila horretara heltzea.

EHUn egon zara, eta etorkizuneko euskal kazetariak ezagutu dituzu. Zer deritzezu?

Oso tankera ona hartu diet. Kazetaritzako 2. urteko neska-mutil gazteak ezagutu ditut; arreta handia jarri dute. Urrunetik nator ni, irla txiki batetik, baina interes handia erakutsi dute ea Kubaz zer esaten duan. Egindako galderengatik jakin izan dut batzuek badakitela Kuban zer gertatzen den; hori oso ona da. Beste batzuek estereotipoetatik edan dute, eta horien galderak onenak izan dira, bidea eman didatelako erakusteko kazetaritza txarraren biktima izan direla, Kubari buruzko eduki zehatzik ez duten biktimak. Ez naiz inor konbentzitzen ahalegindu, baina gonbidatu ditut gehiago ikertzera eta iturriak dibertsifikatzera. Oso elkartruke polita izan da. Estatu espainoleko beste lekuetan horrela balitz! Kazetari gazteengan esperantza daukat.

Zer deritzozu Askapenaren aurkako epaiketari?

Irakurle gisa baino ez dut ezagutzen gaia. Beraz, gura dut horren inguruan iritzirik ez ematea. ◀



Santiago Agirrek liburuan azaldu duenez, 2009an Gonzalezek Martinez de Irujoren bideoak ikertu zituen, bere teknikak eta hutsuneak ezagutzeko. Horri esker irabazi ei zuen txapela.

Esku-pilotazaleek berbaldi interesgarria izango dute aukeran martitzenean: Algortako kultur etxeak hartuko du *Los campeones del 4 1/2* liburuaren aurkezpena.

Datorren martitzenean, hilak 24, *Los campeones del 4 1/2* (Ediciones Beta) liburua aurkeztuko du Algortan Santiago Agirre idazle bilbotarrak. Ekitaldia Villamonte kaleko liburutegian egingo dute, kultur etxearen barruan, 19:00etan. Sarrera doakoa eta librea izango da (leku kopurua mugatua da).

Liburuan, Agirrek 4 eta erdiko txapelketaren historia birpasatu du, baita

kaiola-gaz lotuta izan diren pilotarien izenak ere, Akarregirengandik hasi eta Titin III.aren gaitasuna heldu arte. 295 orrialdeetan, atzerako bidaia egin du denboran, pasadizoz eta sorpresaz betetako txapelketa horren hastapenak eta bilakaera ezagutarazteko.

Bizkaian, txapelik ez

1953an antolatu zuten jokalaria profesionalen arteko lehenengo 4 eta erdi-

ko txapelketa. Bost urte jarraian egin ostean, 1957an utzi zioten antolatzeari; 32 urte luzez, hutsik egon zen. 1989ra arte, ez zuten berreskuratu gaur egun esku-pilota profesionalaren ardatza den txapelketa. Hasierako urteetako eta azken hamarkadetakoa hamabost txapeldunen zerrenda «luxuzkoa» da: Akarregi, Soroa II.a, Barberito, Ogueta, Retegi II.a, Eugi, Galarza III.a, Nago-re, Arretxe, Unanue, Barriola, Olaizola II.a, Martinez de Irujo, Titin III.a eta Gonzalez. Zerrenda horretan, Akarregi lekeitiarra da bizkaitar bakarra. Hala ere, bizkaitar batek ere ez du egundo txapelketa horren txapela jantzi. Aka-

regik irabazi zuen «garaian, garaikur bat besterik ez zietelako ematen, txapela esku-huskarako zelako bakarrik», dio Santiago Agirrek. Liburua prestatzeko urtebete eman du: hemerrotekan, hilda dauden antzinako txapeldunen senideak elkarrizketatzen eta bestelako protagonistakaz batzen.

«Ezinbestekoa»

Getxoko liburutegiek iragarritakoaren arabera, liburua «ezinbestekoa» da esku-pilotazale denentzat, eta, gainera, Agirreraren aurreko lanaren osagarria ere bada: *Grandes campeones de la pelota a mano*. ◀

Vaca Gigante olatura igoko da Natxo Gonzalez

Natxo Gonzalez Iglesias 19 urteko surflari plentziarrari lana pilatzen zaio, azken bolada honetan. Otsailaren 28ra bitartean, etorkizun oparoko gazteak parte hartuko du Galeako Olatu Handien Txapelketaren hamargarren edizioan, Olatu Handien Nazioarteko Zirkuituko Europako proba bakarrean, alegia. Horrez gainera, bitartean, Kantabriako Vaca Gigante olatu handira ere igoko da Gonzalez. Izan ere, bertako antolatzaileek plentziarra gonbidatu dute, beste 31 surflari gehiagogaz batera, besteak beste, hauek: Indar Unanue, Nagai Puntiverio, Axi Muniain eta



Aritz Aranburu euskal herritarrek bertan izango dira. Proba Santanderretik 5 kilometrora egiten dute, Las Canteras itsas labarretan. Lehiaketa egiteko epea martxoaren 31n bukatuko da.

info+: Lavacaxxl.com

Peredak zilarra lortu du munduko karate-lehiaketan

Xabier Pereda karateka getxoztarra munduko bigarrena da gazte-mailako Katan, pasa den asteburutik. Izan ere, zilarrezko domina jantzi zuen Indonesiako Jakarta hirian jokaturako munduko txapelketan. Pereda brontzea izan zen 2013ko mundialean, eta Europako txapelduna, 2014an. Hala ere, aurtengo Europako Txapelketan hirugarren geratu zen.

Sara Pablos borrokalaria getxoztarra, oster, podiumean sartzeko urrats batera lotu zen. Pablos laugarren sailkatu zen kadete-mailan. Getxo Karate Klubeko kide biak Espainiako Federazioagaz lehiatu ziren. ◀

Emakumeen gomazko paleta-kiniela, Getxon

Barikurako emakumeen gomazko paleta-kiniela antolatu du Getxo euskal pilota-taldeak. Hitzordua Andra Mari udal pilotalekuan ipini dute, 19:30ean. Bertan, 18 pilotarik parte hartuko dute, hiru kinielatan. Lehenengoan, honako jokalaria izango dira: Miranda-Diez, Fuentes II.a-Lejonagoitia eta Thate-Heredia. Bigarren proban frontoira sartuko dira Martinez-Saenz, Gonzalez-Lejonagoitia eta Lejonagoitia II.a-De Miguel. Azken multzoan, honako emakumeen txanda izango da: Rodriguez-Fuentes, Marriskurrena-Ouro eta Boada-Villanueva. Onenak finallean lehiatuko dira, poltsaren truke. ◀

Entrenatzaile berria, Erandion



Aurretik teknikari berria lanean hasi ezean, Iker Martin joango da Sodupeko partidara. © IKER MARTIN

Jaisteko lekuetatik ihesi dabil Erandioko talde-nagusia. Mugan dago, Ohorezko Mailako 16. postuan, 5 puntugaz. Atzean dauzka Urduliz, puntuazio beragaz, eta Trapagaran, azkena, lau puntugaz. Orain aste bi, zuri-urdinak jaistekoak ziren, 7 partidetatik 6 galdu eta bat irabazi ostean. Orduan, dimisioa aurkeztu zuen Gaizka Ballarin entrenatzaileak, «emaitzak negatiboak izan direlako». Iker Martin koordinatzaileak eta filialeko entrenatzaileak hartu zuen behin-behinean taldea, eta berdinketa bi lortu ditu, Derion eta Ategorrin.

Julio Puertas zuzendaritzako ki-deak onartu duenez, «teknikari bat gaz gabiltza elkarriketetan». Bai-

korra da, baina pazientzia eskatu du entrenatzaile berriak sinatu arte. Era berean, Ballarin eta bere laguntzaileei «profesionaltasuna» eskertu die. Gainera, azpimarratu duenez, «joan diran egin duten arte bakarrik kobratuz, eta hori aipatzekoa da».

Pasa den maiatzean, erabateko al-daketa izan zuen Erandioko Kirol El-karteak. Futbol-taldea Hirugarrenetik Ohorezkora jaitsia zen, eta Oskar Ta-buenka ordura arteko entrenatzaileak lekua egin zion Apurtuarte taldetik ze-torren Gaizka Ballarini. Marina Gar-cia Franco presidente berriak orduan azaldu zuenez, klubak Ballarinengan konfiantza jarri zuen, «eskarmentu eta ilusio handikoa» zelako. ◀

Pichichi Fundazioak Atlas zeharkatuko du

Pichichi Fundazioak parte hartuko du datorren urtean Atlaseko Klasikoen Elkartasun Rallyan. Martxoaren 19tik 27ra, Tanger eta Essauira bitarteko 1.500 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egingo dute, Atlas mendikatetik igaroz.

Rally hori kirol-ekitaldia da, baina turismo-, kultura- eta elkartasun-kutsua ere badu. Izan ere, abentura eta lehiaketa tartekatzeaz gainera, Atlas mendikateko Marokoko basamortuko herri txiki eta herrixka behartsuengana laguntza humanitarioa emateko helburua dauka. Rallyaren edizio honetan, Rafael Moreno «Pitxitxi»-ren

omenezko fundazioak talde bat eramango du lehiaketan parte hartzeko, eta bertan laguntza-materiala banatzeko ere bai. Izan ere, antolatzaileek esan dutenez, bertara doazen pertsona denek elkartasun-kutxa bat eroan beharko dute, eta materialak utzi aldez aurretik antolakuntzagaz adostutako lekuetan: ikastetxe, anbulatorio eta elkarteetan.

Atlaseko proiektua bidean jarri ahal izateko, dirua batzeari ekingo dio Pichichi Fundazioak. Horretarako ongintzazko gala antolatu dute otsailaren 27rako, zapatua, Jolaseta klubaren instalazioetan. ◀



Rallyko ibilgailu klasikoek 20 urte baino zaharragoak izan beharko dute. © TEKNISPORT MOTOR

Irratia ipini du martxan Leioa Kirol Elkarteak



© LEIOA K. E.

Urriaren 17tik, Leioa Kirol Elkarteak beste tresna bat dauka bere oinarria elikatu eta handitzeko, dagoen lekuan dagoela. Egun horretan, webguneko irratia-atala martxan jarri zuten Sarrienakoek, Barakaldoren aurkako derbia baliatuta. Espe-

rientzia positiboa izan zenez, ofizialki kanala estreinatu zuten, azaroaren 1ean, Portugaleteren aurkako derbian. Jonathan Cortes esataria ordutik dabil lanean, Sarrienako instalazioetan zein kanpoko futbol-zelaietan Leioako lehenengo gizonezkoen taldearen demak zuzenean lau haizeetara zabalduz. Javi Landeta klubeko presidenteak azaldu duenez, zale askoren eskaera zen irratia. Pasa den denboraldian, Getafeko partidari, webgunea 88. minutuan erori zen, eta 10 minutuz zaleak irrikan egon ziren, jakin barik taldeak mailari eutsiko zion ala ez. ◀

info+: Sdleioa.com/es/radio

Uribe Costa elkarteak areto-futbolaren ligan



© ATHLETIC

Pasa den zapatuan abiatu zen areto-futbol egokituaren euskal ligan laugarren edizioa. Liga horretan hiru kategoria daude, eta, denera, sei taldek parte hartuko dute. Eskualdeari dagokionez, Uribe Costa elkarteak da ordezkari bakarra. ◀

Athleticeko bufandak ikusgai Astrabuduan

Astelehenetik barikura, hilaren 23tik 27ra, erakusketa bitxia hartuko du Astrabuduak. Futbolzale, bildumazale eta jarraitzaile zuri-gorrientzat erakargarria izan daiteke. Izan ere, Athleticen hainbat lepoko eta bestelako osagarri ikusi ahal izango dira auzo horretako Josu Murueta kultur etxeko erakusketa-gelan. Ekimena Erandioko Athletic Goitiko Taldeak antolatu du. Zale-taldeak seigarren urtemuga bete zuen pasa den udan. Dozena erdi urte horietan hamaika jardura antolatu ditu Goitikok, berbarako: Athletic Eguna, nekazaritza-azoka ekologikoa, indaba-jana, eta elkartasun-martxa. ◀



Algortan entrenatzen da Chloe Tracy neskatoa.

«Andre borrokalaririk onena izan gura dut»

Chloe Tracy borrokalaria gazte sopeloztarrak irabazi berri du Euskadiko Jiu-jitsu brasildarraren txapelketa.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Gasteizko K2 gimnasioak hartu zuen, pasa den azaroaren 7an, Euskadiko Norofighter II. Txapelketa, brasildar modalitateko jiu-jitsuaren hemengo lehiaketa nagusia, alegia. Jiu-jitsu kolpe bako borroka-kirola da: lurrean arerioa kontrolatzen ahalegintzen da kirolaria. Gasteizen, 13 urteko Chloe Arene Marrufo Tracy neskatoak irabazi zuen bere kategorian. Areago, orain arte ez du inoiz galdu. Berria da berarentzat komunikabideetan agertzea, baina pozik zabaldu dizkigu Black Belt gimnasioko eta bere etxeko atea.

Zelan joan zitzazun Euskadiko Txapelketan?

Oso urduri nengoen ez nekielako zer egingo genuen, baina esperientzia oso ona izan zen. Lotsati xamarra naiz, eta beldurra nion ez irabazteari. Lotsa handia nuen, eta urduri baino urduriago nengoen.

Norofighter edo jiu-jitsua ez da oso kirol ezaguna. Zelan aukeratu zenuen?

Jiu-jitsua kirola da; Norofighter lehiaketaren izena da. Aukeratu nuen aitak egiten zuelako, eta gustatu zitzaidan. Hasi nintzen, eta aurrera egin dut.

Gogorra da entrenatzea?

Hemen, gimnasioan, ez dago nire adineko inor. Ez neskarik, ezta umerik ere. Gizonak dira denak, 22 eta 34 urte bitartekoak. Hortaz, niretzat entrenamendua ez da oso gogorra. Gustatzen zait.

Zein kategoriatan zaude orain?

Haur-gaztean. Nagusiekin lehiatu ahal izateko 16 urte bete beharra dago. Baina ondo egiten dut, Cleyton Bastos nire entrenatzailea oso ona delako.

Txapelketa asko irabazi ditu, eta eskarmentu handia dauka. Eta horrela irakasten digu.

Entrenamenduakaz batera ikasi ere egin behar izatea, zelan daroazu?

Ondo, lehenengo ikasi egiten dut, eta gero, denbora badaukat, joaten naiz entrenatzera. Ikusten badut gehiago ikasi behar dudala, ez noa. Baina as-

“Ia inork ez du ezagutzen jiu-jitsua, baina niretzat oso ona da, eta gustatzen zait”

kotan joaten naiz, asko gustatzen zait.

Orduan, etxeko lanak ahalik eta lasterren amaitzen ahalegintzen zara, ezta?

Ez, ondo egiten ditut! Kontua da eskolan 16:30ak aldera amaitzen dudala. Eta gimnasioan 18:00etan edo

19:00etan hasten naiz. Denbora daukat etxeko lanetarako eta ikasteko.

Eta lagunakaz jolasteko ere bai?

Beno, astegunetan ez noa lagunakaz jolastera. Zapatu eta domeketan iriten naiz. Eta egun horietan ez dut entrenatzen.

Orduan, aste-akabua lagunakaz jolasteko baliatzen duzu?

Bai. Zapatu eta domekan haiekaz ateratzen naiz, edo ikasteko aprobetxatzen dut.

Zer helburu ipini diozu zeure buruari jiu-jitsuan?

Txapelketak irabaztea! Eta munduko emakumezko borrokalaririk onena izatea. Hori da nire buruari egin diodan proposamena.

Eta, kirolaz aparte, zein da zure ametsik handiena?

Asko eta asko ditut. Bat aukeratzekotan, Hawaiin bizitzea. Nire ametsa izan da lau urte nituenetik.

Familiak bultzada eta babesa eman dizu jiu-jitsuan jarraitzeko?

Bai. Adibidez, Gasteizera aita etorri zen. Amak ezin izan zuen. Irabazi nuen, aita oso pozik ipini zen. Valentziatik etorri zen, oso nekatuta zegoen, eta lehiatzen ikusi ninduen, izugarrizko poztasuna hartu zuen. Nekea kendu zitzaion!

Noizbait tokatuko zaizu galtzea...

Egunen batean izango da, baina oraindik ez. Ez dut inoiz galdu!

Eta zure ustez, zer sentituko zenuke galtzekotan?

Ez dakit. Uste dut urduri jarriko nintzatekeela, triste eta negar egiteko gogoarekin. Horrela urduritasuna askatzen baita. Nire ustez, oso txarto pasatzen da; beldurra diot galtzeari.

Gomendatuko zenieke beste neska-mutilei jiu-jitsuan hastea?

Bai. Oso interesgarria da. Ia inork ez du ezagutzen kirol hori, baina nire ustez, oso ona da, eta gustatzen zait. ◀



Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Antoine Dufour-en
kontzerturako 5 sarrera bikoitz dauzkagu

Azaroak 29, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Antoine Dufour gitarra-jole kanadarrak eskainiko duen emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 24a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



AMETS
GATIKA
Urdulizko kuadrillaren partez

Gure neska politak 8 urte bete ditu. Merendola on batekin ospatuko dugu elkarrekin. Mila kilo musu Maialen, Liher eta Aretxeren partez.



AGUS
PLENTZIA
Lagunen partez

Zorionaaak, Agus!!! Primeran ospatuko dugu zure eguna... Egizu txanda bat eta gora kopak! Jabino, Maite, Angie eta Juanjoren partez.



RAKEL
BRUSELA - SOPELA
Lagunen partez

Zorionak, Rakel!! Ea hurrengoan Euskal Herrian ospa dezakegun!!! Maitasunez besarkada anaiakorra guztiontzat!! Lagunak.



AITITE URBANO
LERIN
Zuriñeren partez

Zure urtebetetzea elkarrekin ospatu ezin dugun arren, espero dut bidaltzen dizkizudan musu handi hauek garaiz heldzea. Maite zaitut, aitite!



OLI
ALGORTA
Santurtziarren partez

Familia ezin da aukeratu; lagunak, ordea, bai. Ez ahaztu inoiz lagun bat baino gehiago zarela guretzat. Noizko hurrengo bazkaria? Zorionak!



JAYONE
ALGORTA
Senide eta lagun partez

Zure urtebetzeak eman digu zu zoriontzeko aitzakia. Hilabete batzuk barru, zuen ezteiekin alaituko gaituzue Anderrek eta biok. Ezin pozago egon!

Sudokua

Gogoan hartu 1etik9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

		2						5
	9						6	4
			3		9			
9			6	1				
						5	7	
7							3	6
1			5		8			
3					1	7	2	
				4				

Soluzioa

1	5	9	3	7	2	6	8	4
8	2	7	1	9	6	5	4	3
3	6	4	8	2	5	9	7	1
9	3	1	5	6	8	7	2	4
6	7	5	4	3	2	8	1	9
2	4	8	7	1	9	3	5	6
7	8	2	6	5	3	1	9	4
4	9	3	2	8	1	7	6	5
5	1	6	9	4	7	2	3	8

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Espero legez, hotza heldu da, freskoa baino. Prestatu barik harrapatu zaitu, sarri gertatzen den moduan. Ez itxaron gehiago neurriak hartzeko.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Irribarrea une apropos batean egiteak etorkizunerako hamaika ate zabal dezake. Datozen egunotan, egiaztatu ahal izango duzu.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Aldeko zorte-bolada izango duzu egunotan. Momentua izango da arrisku txiki batzuk hartzeko. Kirol fisikorako sasoi ona ere izango da.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Irakurtzea modan ez dagoen arren, laster izango duzu liburu interesgarria esku artean izateko aukera. Di-da harrapatuko zaitu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lau hankako abere iletsu bat sartuko da zure bizitzan. Laster gauzak ez dira lehen bezala izango, hobeak baino.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zure sinboloa non ezkutatu den galdetu eta galde-tu ibili beharrean, hartu neurriak. Mendirako txango bat edo solarium saio bat konponbide onak dira.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Udan hainbeste bilatu izan zenituen eguzki-betaurrekoak agertuko dira, tiradera batean. Lepokoan arrastoa segitzea, ordea, zailagoa izango da.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lasaitasun-tonak beharko dituzu hainbat tentelkeria eta gezurren aurrean oihuka ez hasteko. Halere, isil egin arren, argi egizu berba.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Durango Azoka ez dago oso urrun. Bertan erosketa batzuk eta parrandaxoa egin ahal izateko dirua gordetzen hasi beharko duzu daborduko.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Ahalegindu zaitetz lehenago altxatzen, eguzkia ikusi ahal izateko, bestela lantegitik kanpo iluntasunean murgilduko zara egunotan.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Azaroaren 22a egun oso ona izan daiteke, aprobe-txa ezazu. Hala ere, kontuz ibili eskailera eta arrapala mekanikoakaz.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)


Posta elektronikoaren kutxatila goitik behera behin eta berriro errepasatu arren, mezua ez da lehenagoko helduko.

Gune beltzak

Leioako segurtasuna aztertu dute EHUn

Laura Soto eta Osertz Escobar EHuko Kriminologia graduko 3. mailako ikasleek genero-ikuspegia oinarri hartuta, emakumeentzat «arriskutsuak» izan daitezkeen Leioako guneak ezagutarazi dituzte azterlan batean.

IKER RINCON MORENO



Aztertutako eremuak

- A Erdigunetik Avanzadako iparraldera**

 - Iturribide 17 eta Bidekurtzio plaza.
 - Santsoena auzorako bidea.
 - San Juan Taldeko eskailerak.
 - Ikea mendia kalea, 12, 14 eta 16.
 - Ikea kalerako bidea, Errekalde plazaren atzetik.
 - Ellexaldeko errota.
- B Erdigunetik Avanzadako hegoaldera**

 - Errekalde plazaren atzeko eskailerak.
 - Hilerriaren ondoko bidea.
 - Sabino Arana etorbideetik Sakoneta kalerako eskailerak.
 - Sakoneta kiroldegiko eskailerak.
 - Osasun-etxerako bidea.
- C Ondiz, Txorierri eta Pinueta**

 - Aldapabarrena-Altzaga ikastola.
 - Viviendas de Bizkaia.
 - Sabino Arana etorbideetik Iparragirrerako sarrera.
 - Sabino Arana etorbidea, 84.
 - Kandela Zubieta.
 - Luis Libano Arana pasabidea.
 - Udondoko bulebarra.
 - Agirre lehendakaria plaza.
 - Independentzia kalea.
 - Ondizko bidegurutzea
 - Ondiz parkea
 - Txorierri eta Ondiz auzoen arteko kalea.
 - Lamiakora jaisteko eskailerak.
 - Ur-biltzagirako bidea.

Hiriguneetan zein landa-eremuetan modu berean bizitzeko eta gozatzeko aukera izan beharko lukete gazteek, urritasunen bat duten pertsonak, gizonak zein emakumeek. Hala ere, errealitatean ez da ohikoa halakorik bermatzea; izan ere, zenbaitetan, kolektibo batzuk ez dira seguru sentitzen ezta euren herrian ere: berbarako, emakumeak. Hala, genero-ikuspegian oinarritutako segurtasun-falta horien arrazoiak ikertu dituzte dituzte Laura Soto eta Osertz Escobar ikasleek, *Auditoria local de seguridad desde la perspectiva de genero femenino. Leioa, 2015* izeneko lanagaz. Leioako emakumeek arriskutsutzat jotzen dituzten lekuak ikertu, eta horien segurtasuna hobetzeko proposamenak egin dituzte. Sotok eta Escobarrek jakinarazi dutenez, emakumeen adinak eragina du delituari beldurra izaterakoan, «positiboki zein negatiboki»; euren arabera, gazteek baino beldur txikiagoa diote sexu-erasoari adin nagusiko emakumeek.

Lur-azpiko pasabideak, ezelako argirik bako kale-zuloak, zaindu gabeko landaredia duten gunak, eta ikusbiderik bako bidegurutzeak; Sotoren eta Escobarren ustez, horrelako eremuek segurtasun-faltaren sentsazioa eragin ohi diote auzotarrei, baina, batez ere, emakumei. «Segurtasunik ez dagoelako irudipen hori sorrarazten dute, neurri batean, lanean bildu eta azaldu ditugun aldagaiek: ikusgaitasunak, argiztapenak, ezkutatzeko aukerak, jendearen dentsitateak, gunearen kalitateak, kontrolatzeko aukerak, eta laguntza lortzeko aukerak. Horregatik, gune batzuetako ezaugarriak direla-eta, errazago da zenbait delitu egitea, eta zailagoa, beste batzuk egitea», azaldu du Sotok. Escobarren berbetan, zaindu gabeko edo aintzat hartu bako eremu horietan, «delituen beldurreratik, pertsona gutxi ibiltzen da; hala, emakumeak bakartu egiten dira; gune publiko horiek baztertzen dituzte... Horrek, azken finean, eragotzi egiten du herritar guztiek erabili ahal izatea hiri-eremu publikoak».

Leioak 30.000 biztanletik gora ditu. Gogora ekarri dutenez, abeltzaintza eta laborantzako baserri sakabanatuek osatutako herria zen hasieran; baina industrializazioagaz batera, herriaren fisio- nomia aldatu egin zen. Hazkunde demografikoak eremu berriak sortu zituen, eta izugarri ugartu ziren etxebizitzak, aisialdi-zentroak, parkeak, galeriak eta industrialdeak, besteak beste. Leioa oraindino ere garatzen dabil, eta ikasle biek ohartarazi dutenez, erronka askori egin beharko dio aurre herriak, «hala ere, beste hainbat arazo alboratu egiten dira. Leioako hiri-diseinuak, azken batean, EAEko herri askoren bide berari jarraitu dio».

Herri «seguruaren» bila

Soto eta Escobar Kriminologia gradu-ko ikasleek lanak Leioako 40 leku «gatazkatsu» baino gehiago aztertu

ditu, generoaren ikuspegia oinarri hartuta; lanak 112 orrialde dauzka eta argazkiak, lekuaren morfologia- ren azalpenak, ondorioak eta gune ilunak hobetzeko proposamenak jasotzen ditu. Gradu-ko 2. maila ama-itu eta gero, udan egin zituzten borondatezko prakti- kak, eta horietan dago oinarrituta lana. Escobarren berbetan, «teoria praktika bihurtu» gura izan zuten, eta Leioa horretarako leku aproposa zela otu zitzaie- n. «Udalak bidea eman zigun audito-reta egiteko, eta izugarri eskertzen diogu Ricardo Eguire- n Leioako Udaltzaingoaren buruari; izan ere, beste udaltza- in- kaz batera, guri laguntzen aritu da uneoro».

Azaldu dutenez, azterlana bideratzeko, lagun- garri izan dute Euskal Herriko Bilgune Feministak egin- dako gune beltzen mapa; era berean, Leioa hauta- tzerako orduan, eragina izan zuen 2009an egindako beste lan batek: *Diagnostico urbano desde la perspec- tiva de genero en Leioa*. Azterlan hori Leioako zenbait

Sotok eta Escobarrek emakumeentzako «arriskutsuak» izan daitezkeen 40 leku baino gehiago aztertu dituzte Leioan

Kriminologia-ikasle biek egin duten ikerketaren gaineko hausnarketa egiten dabil Udala, datuak kontrastatu ahal izateko

emakume-ekin zuten, Udalaren laguntzagaz. Iker- keta horregaz, emakumeek kaleak aztertu zituzten, hiri-eremuetan zeuden hutsuneen bila, leku horiek identifikatu eta hobetze aldera. «Aurretik egindako lan horri esker, udalerritik hobeto ibili ahal izan gara, eta bertako leku arazotsuak topatu ahal izan ditugu; segurtasun urriko beste gune batzuk ere identifika- tu ditugu, ordea. Lana, bestalde, lagungarri izan zai- gu sei urteotan egindako aldaketak aztertzeko. Ere- mu batzuk asko hobetu direla ikusi dugu, hala nola: Udondoko Bulebarra, San Juan etxebizitza-multzo- rako eskailerak eta Viviendas de Bizkaia; hala ere, oraindik badaude hobetu beharreko tokiak: Agirre lehendakariaren plaza (Txakurzulo), Cervantes plaza edo Landabarri pasealekuko lur-azpiko pasabidea. Alabaina, argi eta garbi utzi behar da Leioan oso deli- tu gutxi egiten direla», adierazi du Sotok.

Kriminologia gradu-ko ikasleek azpimarratu dute- nez, «egokitu» beharrekoak dira oinarritzko segurta- sun-elementurik ez daukaten eremuak. «Lur-azpiko

igrobideak dauden lekuetan, beste ibilbide segu- ru batzuk gehitu behar dira; batzuetan, bideozain- tzarako kamerak jarri behar dira; argi gehiago jarri, eta zuhaitz eta landareen tamaina egokitu behar da; udaltzain gehiago egon behar da kalean; bariku eta zapatu gauetan segurtasun pribatua jarri behar da metro-sarbideetako inguruetan; eta, gainera, apustu egin behar da metroarekin lotzeko autobusak udale- rriaren erdiguneraino joatearen alde», azaldu du Es- cobarrek. Haren ustez, gainera, hiri-eremuen disei- nua «izugarri» hobetuko litzateke arkitektoak, udal teknikariak, botanikariak eta kriminologoak koor- dinatuko balira. «Horrela, ez da segurtasunik gabe- ko gunerik edo kontrol soziala zailtzen duen eremu- rik sortuko. Izan ere, itxuraz abandonaturik dagoen eremu batean ekintza bandalikoak kontrolatzen ez badira, azkenean ugaritu egiten dira, eta zabaltzeko arriskua dago, garaiz aurre egiten ez bazaie». Horrez gainera, Kriminologia ikasleek aurkitutako «gune beltzen» segurtasuna «hobetzeko» hainbat gomen- dio aurkeztu dituzte, berbarako: emakumeen ohiko joan-etorrien bideen inguruko ikerketak egitea, herri- ko eragileen iritzia kontuan hartzea, eta politika par- te-hartzaileen aldeko apustua egitea. Aholku zeha- tzak hauek izango lirateke: argiteria eta landaredia aztertzea, eremuak zaintzea, bideo-kamerak ezarri ala ez hausnartzea, lur-azpiko pasabideak orde- zka- tzea, metro-geltokitik erdigunera gauez joango den autobus-zerbitzua eskaintzea, eta poliziaren kaleko presentzia bermatzea, besteak beste. Azken gomen- dio horren harira, salatu dute autoz patruilatzeak he- rritarrenganako kontaktua «mugatzeko» duela.

Halaber, «berehala ekiteko» hainbat eremu ere zehaztu dituzte: Cervantes plaza, Luis Libano Arana pasabidea, eta Landabarri pasealekuko lur-azpiko pasabideak, besteak beste.

Ikerketari buruzko gogoeta egiten dabil Udala Leioako Udala ikasle bien ikerketaren gainean haus- nartzen dabil gaur egun, bertan agertzen diren da- tuak kontrastatzeko. Horren ostean, azaldu dutenez, eurakaz harremanetan jarriko dira, euren azalpenak jaso ahal izateko. Ondoren, 2009an egindako lanean parte hartu zuten emakumeen elkar- te- etako kideakaz elkartzeko asmoa duela azaldu du Udalak, Sotok eta Escobarrek identifikatutako gune horiek ikusteko eta emandako datuak eta informazioa kontrastatu ahal izateko. Hala ere, Iban Rodriguez Etxeberria Leioako Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugi- kortasun eta Ingurugiroko Informazio Batzordearen presidenteak azaldu duenez, azterlan berrian ager- tzen diren puntu batzuetan konponbiderik ez dago, eta beste batzuetan, «egin ahal zirenak eginda dau- de». Era berean, aipatzen diren beste hainbat eremu jabego pribatukoak direla gogoratu du. ◀

- Gaztelubide eta Pinueta arteko bidegurutzea.

Artatza, Artatzagana eta San Bartolome

- Artatzagane auzorako bidea.
- Artatzagane urbanizazio- rako bidea.
- Ermitazpi zubiko pasabidea.

- Landabarri pasealekuko lur-azpiko pasabideak.
- Artatza eta Basa- ñese kaleen arteko eskailerak.

Lamiako

- Langileria kalea, 2, 36, 92 eta 178.
- Juan Ajuriagerra plazako pasabidea.
- Gabriel Aresti kalea, 1.

Pinueta

- Larramendi eta Maiatzaren Bata kaleen arteko bidea.
- Cervantes plazarako aldapa.
- Nafarroa kaleko atzealdea.
- Nafarroako kaleko lur-azpiko pasabidea.

Eremu bereziak

- Sonora diskoteka eta Leioa lotzen dituen bidea.
- Cervantes plaza.
- Iparragirre etorbideko lur-azpiko tunela.
- Iberdrola azpiestazio- rako bidea.

Gomendioak

- Mendibile kalea, 3; Behargintzaren inguruan.
- Txorierri kalea, 46.
- Artatzagana eta Elexalde etorbidearen arteko pasealekua.
- Laubide 13 eta Basa- ñese kaleen arteko eskailerak.
- Pinueta kaleko 12 kale- zuloa.



Flashback edo Lehen/Orain

Berangoko hilerri ohiaren parean, 1965-66

Ez da Flashbackeko ohiko talde-argazkia, ez; ume bakar bat ageri da irudian. Ostera, inguruak egiten du benetan erakargarri. Izan ere, gaur egun, leku horren Lehen/Orain bat eskaintzea ezinezkoa da, ez bada oraingo eraikin baten hormak aurrean ditugula. Horrenbestez, atal biren hibridoa duzue hau.

6oko hamarkada erdialdean, Berangoko hilerri ohiaren aurrean ateratako argazkian dagoen umetxoa Aitor Aurrekoetxea da. Argazkia utzi digun Karmele Bilbao azaldu digunez, gurutzearen atzeko aldean Castoritaren etxea dago, eta, goratxoago, berea. Gaur egun inguru horretan, Berango Merana ikastetxea eta Emakumearen Etxea daude, Karabigane auzoan.

Argazkian: Aitor Aurrekoetxea



© KARMELE BILBAO ASTARLOAK UTZITAKO ARGAZKIA



TESTUA

Josu Landeta Egurrola

DOINUA

Urrezko isuri eder gozoa

ARGAZKIA

Auxkin Sierra Uria

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia, eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Marinelak lehorrean

Horra landa bat udazkenean bere kolorea galtzen, horra itsasoa urdintasuna fresko eta alai zabaltzen. Erdi-erdian txalupatxo bi, eguzkipean hain gizen; hor daude lasai, baina ez agian uste dugun bezain zuzen. Itsaso handiak freskatu arren ez dute lartxo gozatzen, ezen uraren ukimen barik apurka ari dira hiltzen.

Orain demagun txalupa biak berba lagunak direla, eta zelaian euskal kalaka gozo barean daudela. Hamaika ere egon litezke bertan sortzen giro itzela bertso, ipuin, kantu, kontu eta dantza zaparradan mela-mela. Itsasoa urrun dela, noiz arte bizi litezke horrela? Nabiga ezinik, alaitasuna gerta liteke ustela!

Euskaltegien, kultur taldeen eta eskolen zuhaizpera hurbiltzen gara euskal hizkuntza eramateko aurrera. Gaur gobernua, lan mundua eta zerak eginik atzera, lur idorrean naufrago gaude txalupa horien antzera. Irten gaitezen erdal itsaso zabala konkistatzera, euskal txalupa eramateko garaile portu onera.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua